



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko ekainaren 22a

89. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko ekainaren 4an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak egin du funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016).

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko ekainaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruzko fiskalizazio-txostena (2012-2016), Kontuen Ganberak egina**

**AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Irakaskuntza ez-unibertsitarioa Nafarroan (5. or.).
- III. Helburuak, norainokoa eta mugak (13. or.).
- IV. Konklusioak eta gomendioak (15. or.).
  - IV.1. Irakaskuntza pribaturako funts publikoak (2012-2016) (15. or.).
  - IV.2. Lurzoru publikoaren lagapenak ikastetxe pribatuentzat (19. or.).

- IV.3. Ikastetxe pribatuen zerga salbuespenak edo kenkariak (21. or.).
- IV.4. Hezkuntza Departamentuaren ikuskerpen eta kontrol jarduketak (23. or.).
- IV.5. Ikastetxe lagin baten azterketa (24. or.).
- IV.6. Ikastetxe itundu baten gastua eta ikastetxe publiko batena: konparazio-azterketa (25. or.).
- IV.7. Amaierako konklusioa eta gomendioak (28. or.).
- 1. eranskina. Ikastetxe pribatuen zerrenda (29. or.).
- 2. eranskina. Ikastetxe pribatuetako ikasle kopuruak (31. or.).
- 3. eranskina. Gelen kopurua ikastetxe pribatuetan (32. or.).
- 4. eranskina. Gelako ratio txikiak eta handiak, aztertutako aldiak, hezkuntza zikloaren eta ikastetxe motaren arabera (33. or.).
- 5. eranskina. Ikasle atzerritarren ehuneko txikiak eta handiak, aztertutako aldiak (35. or.).
- 6. eranskina. Moduluak eta irakasle ratioak unitate itundu bakoitzeko, 2016 (36. or.).
- 7. eranskina. 2012-2016 aldiak 10.000 eurotik 1.000.000 eurora bitarteko gastua izan duten aurrekontu-partidak (40. or.).
- 8. eranskina. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik ikastetxe pribatuek jasotako funts publikoak (2012-2016) (41. or.).
- 9. eranskina. Ikastetxe pribatuek udaletatik jasotako funts publikoak (2012-2016) (43. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (44. or.).
- Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (51. or.).

## I. SARRERA

2016ko azaroaren 10ean, parlamentu-eskaera bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, Podemos-Ahal Dugu talde parlamentarioaren ekimenez, 2012., 2013., 2014. eta 2015. urteetan irakaskuntza ez-unibertsitario pribatura bideratutako aurrekontu-partidei buruzko fiskalizazio-txostena egiteko.

Zehazki, eskaeran honako aztergai hauek aipatu ziren:

- “...Irakaskuntza pribatu eta itunduko entitateek jaso dituzten Nafarroako, Estatuko edo Europako aurrekontu-partiden eta gainerako diru-sarrera publikoen xehakapena:

- Itun propioak.
- Lurzoru publikoaren lagapena azpiegiturarako.
- Eraikinak mantentzeko laguntzak.
- Proiektu espezifikoetarako laguntzak.
- Efizientzia energetikorako laguntzak.
- Berrikuntza proiektuak.
- Bekak, eskola materialak eta liburuak.
- Irakasleen eta gainerako langileen kontratuen ordainketa.
- Beste programa batzuk (aniztasunari erantzutea, informatizazioa eta abar)

- Partida horien xehakapena, kontuan hartuta zertarako diren, derrigorrezko hezkuntzarako edo hezkuntza ez derrigorrezkorako.

- Irakaskuntza pribatu eta itunduko entitateek fundazio, elkarte edo partikularrengandik (ikasleen familiak, guraso elkarteak, eskolaz kanpoko jarduerak eta abar) jaso ditzaketen beste diru-sarrera batzuk.

- Irakaskuntza pribatu eta itunduko entitateek dituzten zerga salbuespenak, kenkariak eta bestelako hobari edo onura fiskalak, eta horien diru zenbatekoa urtean.

- Zehaztea zenbatekoa litzatekeen ikasle bakoitzeko kostua irakaskuntza itunduan, 25 ikasleko ratioa izanen balu (irakaskuntza publikoak bezala), 30 ikasleko ratioaren ordean.

- Azkenik, irizpide objektibo batzuk prestatzeko aukera baloratzea, Nafarroan irakaskuntza pribatu eta itunduaren sareak jasotzen dituen funtsen auditoria publikoa egin eta hura sare publikoarekin konparatu ahal izateko, bereziki konparatuz sare publikoak izaten dituen zenbait kostu, normalean sare pribatu eta itunduak izaten ez dituenak (irakasleen soldatak, landa eremuetako arreta, garraio publikoa eta abar)...”.

Geroago, 2016ko azaroaren 18an, Ganberan beste parlamentu-eskaera bat erregistratu zen Izquierda-Ezkerra talde parlamentarioaren ekimenez, aurreko eskaera sakontzen zuena, honako puntu hauek ere aztertzeko eskatuz:

- Ea ikastetxe pribatu itundu bakoitzari emandako irakastordu kopuruaren banaketa eta kontzeptua bat datozen ordainketa eskuordetua jasotzen duen langile bakoitzak egiten duen lanarekin. Alegia, ea ikastetxe horietako langileek jasotzen dituzten nominak bat datozen emandako zerbitzuekin.

- Patronaletako (erlijioso-kongregazioak, kooperatibak...) zein kidek jaso duten edo jasotzen duten ordainketa eskuordetua, zein jarduerarengatik jasotzen duten, eta zer adin duten.

- Ea ikastetxe pribatu itunduen patronalek baduten langilerik bere soldata diru-laguntza publikoen kargura jasotzen duenik (liberatu patronalak).

Lan hau sartu zen Kontuen Ganberak 2017rako onetsi zuen urteko fiskalizazio-programan. Auditoriako hiru teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak egin du, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboan laguntzarekin, 2017ko azarotik 2018ko apirilera bitartean.

Txostenak lau atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioaren alderdi orokorrak deskribatzen dira; hirugarrenak lanaren helburuak, noraino-koa eta mugak biltzen ditu, eta laugarrenean lortutako ondorioak eta gomendioak azaltzen dira. Gainera, bederatzi eranskin ditu, txostenean azalduetako datuetako batzuei buruzko informazioa zehatzagoa dakartenak.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko langileei, San Juan de la Cadena ikastetxe publikokoei, lagineko ikastetxe itunduetakoei (Miravalles-El Redín ikastetxea, San Fermin ikastola, San Cernin ikastetxea, Santa María la Real ikastetxea, La Compasión-Escolapios ikastetxea, Compañía de María ikastetxea, Lizarra ikastola, Garcés de los Fayos ikastola, Altsasuko Jesusen Bihotza ikastetxea eta Esclavas del Sagrado Corazón ikastetxea) eta Nafarroako 272 udaletako langileei.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako kargu hauetan ziharduten pertsoneri jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzen:

- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko kontseilaria.
- Aipatutako ikastetxeetako zuzendariak.

Honako ikastetxe hauek alegazioak aurkeztu dituzte Kontuen Ganberak emandako epean: Miravalles-El Redín ikastetxeak, Compañía de María ikastetxeak, Garcés de los Fayos ikastolak, Santa María la Real ikastetxeak, Altsasuko Jesusen Bihotza ikastetxeak eta Lizarra ikastolak. Hezkuntza Departamentuko kontseilariak ere alegazioak aurkeztu ditu. Alegazio horiek ez dute aldaketarik ekarri gure txostenean. Ganbera honek haiei emandako erantzunarekin batera, behin betiko txostenean gehitu ditugu.

## II. IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOA NAFARROAN

Hezkuntza oinarrizko eskubide unibertsala dela aitortzen da Konstituzioan. Zerbitzu publikoa da, baina ez dago sektore publikoarentzat soilik gordeta; Konstituzioak berak aitortzen du irakaskuntza-askatasunerako eta ikastetxeen sorrera askerako eskubidea, eta, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoak (Hezkuntzaren Kalitatea Hobetzeko 8/2013 Lege Organikoaren bidez aldatua) dioenez, hezkuntza zerbitzu publikoa ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen bidez emanen da.

Eskumenen banaketari dagokionez, Estatuak oinarrizko arauak ematen ditu hezkuntza garatzeko eta hezkuntza sistema taxutzeko, eta Nafarroari dagokio bere lurraldean hezkuntza sistema osoa arautu eta administratzea. Banaketa horren arabera, 251/1992 Foru Dekretuak Nafarroan araubide orokorreko ikasketa ez-unibertsitarioak ematen dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura ezartzen du.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioa derrigorrezkoa eta hautazkoa izan daiteke; derrigorrezko atalekoak dira Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako etapak, eta hautazko atalekoak dira Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (hiru urtetik seira bitarteko etapa), Batxilergoa eta Lanbide Heziketa.

Baimendutako ikastetxe itunduen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren (hemendik aurrera, NFKA) arteko harremanak arautzen dituen tresna, arau orokor gisa, ituna da, Hizkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duen 416/1992 Foru Dekretuan arautzen dena.

Bestalde, badira irakaskuntzan aritzeko diru-laguntzak jasotzen dituzten beste entitate pribatu batzuk, eta horiek Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen bidez arautzen dira. Gainera, baimendutako sei ikastetxek ez dute funts publikorik jasotzen.

### *Ikastetxeen kopurua*

Nafarroan guztira 307 ikastetxe aritzen dira irakaskuntza ez-unibertsitarioan. Horietatik, 235 (ehuneko 77) publikoak dira, eta gainerako 72ak (ehuneko 23) titulartasun pribatukoak dira. Ikastetxe pribatuak Nafarroako Gobernuarekin duten harremana nola arautzen den kontuan izanda sailkatuz gero, informazio hau lortzen dugu:

Ikastetxe mota	Nola arautzen den Administrazioarekiko harremana	Ikastetxe kop.
Erligioso-kongregazioen ikastetxeak eta kristau inspiraziokoak	Ituna	38
Nafarroako ikastolak	Ituna	13
Kooperatiba ereduko ikastetxeak	Ituna	2
Hezkuntza bereziko berariazko ikastetxeak	Ituna	2
GKEak eta fundazioak	Diru-laguntzei buruzko Foru Legea	9
Jesusen Bihotza ikastetxea (Altsasu) eta Padres Reparad. ikastetxea (Gares)	Diru-lag. buruzko 1995eko Foru Ag. (elizbarrutiko apaizgaitegi txikiak)	2
Laguntzarik gabeko beste zentro baimendu batzuk	Batere ez	6
<b>Guztira</b>		<b>72</b>

Ikus daitekeenez, 66 ikastetxeetatik 55 (ehuneko 83) itunen sistemaren bidez arautzen dira, eta 11 ikastetxek (gainerako ehuneko 17a) Diru-laguntzei buruzko Foru Legearen bidez jasotzen dituzte funtsak. Nabarmendu behar dugu Altsasuko Jesusen Bihotza ikastetxeak (bi zentroz osatua) badituela unitate itunduak eta diruz lagundutako unitateak, lehenengoak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetarako eta bigarrenak Bigarren Hezkuntzarako.

Lehen eranskinean zehazten dugu zein diren funts publikoak jasotzen dituzten 66 ikastetxeak eta nola banatzen diren 27 udalerriren artean; 66 ikastetxe horietatik, 27 Iruñean daude, eta gainera, badira beste ikastetxe batzuen batura diren bost entitate, eranskinean zehazten den bezala.

Hauek dira ikasketak emateko baimena duten eta funts publikorik jasotzen ez duten sei ikastetxeak: Evangelista ikastetxea, Foro Europeo, Ramiro Mata, British School of Navarra, Creanavarrera eta CTL Formación.

#### *Ikasleei buruzko datu orokorrak*

• *Ikasleak*. Hona hemen ikasleriaren eboluzioa azken bost ikasturteetan, ikastetxe motaren arabera:

	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
<b>Ikastetxe publikoak</b>					
Derrigorrezko hezkuntza	40.550	40.949	41.283	42.024	42.685
Lehen Hezkuntza	25.090	25.244	25.522	25.949	26.373
DBH	15.260	15.511	15.564	15.853	16.031
Helduentzako DBH presentziala	200	194	197	222	281
Derrigorrezkoa ez den hezkuntza	18.085	18.295	17.989	18.100	17.671
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	12.967	13.144	12.756	12.758	12.430
Batxilergoa	4.793	4.822	4.856	4.955	4.888
Helduentzako Batxilergo presentziala	325	329	377	387	353
<b>Ikastetxe publikoak, guztira</b>	<b>58.635</b>	<b>59.244</b>	<b>59.272</b>	<b>60.124</b>	<b>60.356</b>
<b>Ikastetxe pribatuak</b>					
Derrigorrezko hezkuntza	24.197	24.754	25.142	25.525	25.863
Lehen Hezkuntza	14.452	14.748	14.913	15.021	15.055
DBH	9.745	10.006	10.229	10.504	10.808
Derrigorrezkoa ez den hezkuntza	10.374	10.363	10.311	10.417	10.451
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	7.416	7.372	7.310	7.274	7.217
Batxilergoa	2.958	2.986	2.995	3.138	3.229
<b>Ikastetxe pribatuak, guztira<sup>1</sup></b>	<b>34.571</b>	<b>35.117</b>	<b>35.453</b>	<b>35.942</b>	<b>36.314</b>
<b>Nafarroako ikasleak, guztira</b>	<b>93.206</b>	<b>94.361</b>	<b>94.725</b>	<b>96.066</b>	<b>96.670</b>
<b>Ikastetxe publikoetako ikasleak (%)</b>	<b>63</b>	<b>63</b>	<b>63</b>	<b>63</b>	<b>62</b>
<b>Ikastetxe pribatuetako ikasleak (%)</b>	<b>37</b>	<b>37</b>	<b>37</b>	<b>37</b>	<b>38</b>

Ikasleen guztizko kopurua gora egiten ari da, eta aztertutako aldian igoera ehuneko laukoa izan da; ikastetxe publikoen eta pribatuen arteko banaketak ehuneko 62ko eta 38ko portzentajeei eusten die hurrenez hurren. Bigarren eranskinean ikastetxe pribatuetako guztizko ikasle kopurua ikastetxeka banatu dugu.

Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen datuei dagokiernez, ohartarazi behar dugu barruan sartu direla garapenaren nahaste orokorra dutenak, gela alternatiboetako hezkuntza bereziaren beharra dutenak eta Bigarren Hezkuntzako etapan laguntza handiagoa behar dutenak.

<sup>1</sup> Bi entitatek sexuaren arabera bereizitako irakaskuntza ematen dute bina egoitzatan; Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 84.3 artikulua aukera hori aurreikusten eta babesten du.

• *Gelen kopurua eta ratioak*<sup>2</sup>. Hona hemen zenbat talde izan dituzten ikastetxe publikoek eta pribatuak azken bost ikasturteetan, hezkuntza-zikloka:

	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
<b>Ikastetxe publikoak</b>					
Derrigorrezko hezkuntza	2.071	2.070	2.081	2.108	2.126
Lehen Hezkuntza	1.398	1.394	1.402	1.419	1.440
DBH	673	676	679	689	686
Derrigorrezkoa ez den hezkuntza	891	886	885	894	854
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	695	690	986	692	650
Batxilergoa	196	196	199	202	204
<b>Ikastetxe publikoak, guztira</b>	<b>2.962</b>	<b>2.956</b>	<b>2.966</b>	<b>3.002</b>	<b>2.980</b>
<b>Ikastetxe pribatuak</b>					
Derrigorrezko hezkuntza	950	967	977	981	986
Lehen Hezkuntza	587	599	604	605	604
DBH	363	368	373	376	382
Derrigorrezkoa ez den hezkuntza	406	400	398	399	396
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	303	298	294	295	290
Batxilergoa	103	102	104	104	106
<b>Ikastetxe pribatuak, guztira</b>	<b>1.356</b>	<b>1.367</b>	<b>1.375</b>	<b>1.380</b>	<b>1.382</b>
<b>Nafarroako gelak, guztira</b>	<b>4.318</b>	<b>4.323</b>	<b>4.341</b>	<b>4.382</b>	<b>4.362</b>

Nafarroako gela publikoen eta diruz lagundutako gela itunduen guztizko kopurutik, ehuneko 68 ikastetxe publikoetan daude eta gainerako ehuneko 32a ikastetxe pribatuetan. Datu horiek bat datoz gutxi gorabehera ikasleek ikastetxe motaren arabera duten banaketarekin; horri dagokionez, 3. eranskinean ikastetxe pribatu guztietako gela kopuruak jarri ditugu.

Gela bakoitzeko batez besteko ikasle ratioak lortu ditugu batetik 9.000 biztanletik gorako udalerrietan dauden ikastetxe publiko eta pribatuetarako eta bestetik udalerritxiagoetan daudenetarako; bereizketa hori egin dugu, uste dugulako ikastetxeen inguruabarrak (kokalekua, guztizko ikasle kopurua eta abar) ezberdinak direla udalerraren tamainaren arabera, eta ezin direla konparatu.

<sup>2</sup> Atal honetan aurkezten diren datuek ez dituzte barnean hartzen ikastetxe publikoetan eta pribatuetan Lanbide Heziketan dabilen ikasleak, azken kasu horretan kopurua oso txikia izateagatik.

Emitza hauek lortu ditugu:

Gelako ikasle ratioa	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
<b>9.000 biztanletik gorako udalerriak</b>					
Haur Hezkuntza, ikastetxe publikoak	21	21	21	21	20
Haur Hezkuntza, ikastetxe itunduak	25	25	26	25	25
Lehen Hezkuntza, ikastetxe publikoak	21	21	21	21	20
Lehen Hezkuntza, ikastetxe itunduak	26	26	26	26	26
DBH, ikastetxe publikoak	24	24	24	24	25
DBH, ikastetxe itunduak	27	27	28	28	29
Batxilergoa, ikastetxe publikoak	26	27	27	27	27
Batxilergoa, ikastetxe itunduak	28	29	28	30	30
<b>9.000 biztanletik beherako udalerriak</b>					
Haur Hezkuntza, ikastetxe publikoak	17	17	17	16	17
Haur Hezkuntza, ikastetxe itunduak	19	20	20	20	21
Lehen Hezkuntza, ikastetxe publikoak	16	16	16	16	16
Lehen Hezkuntza, ikastetxe itunduak	17	17	17	18	17
DBH, ikastetxe publikoak	20	20	20	20	21
DBH, ikastetxe itunduak	21	23	21	21	20
Batxilergoa, ikastetxe publikoak	25	25	24	23	23
Batxilergoa, diruz lagundutako ikastetxeak	17	16	21	22	20

Ikusten denez, oro har, ratioak handiagoak dira ikastetxe itunduetan, batik bat 9.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan. Biztanle gutxiagoko udalerrietan ere badira ikastetxe itunduen aldeko diferentziak, baina Batxilergoaren kasuan ratioa handiagoa da ikastetxe publikoetan; hori dela eta, aipatu beharra dago hezkuntzako ziklo hori ematen duen ikastetxe pribatu bakarria dagoela (Garesko Padres Reparadores ikastetxea) biztanleria hori duten udalerrietan.

Datu horiek gelako batez besteko ratioei dagozkie; 4. eranskinean ratio txikienak eta handienak jaso ditugu udalerrri motaren arabera, hezkuntzako etapa bakoitzean eta ikasturte bakoitzean, bai ikastetxe publikoetarako bai pribatuetarako, eta ratio horiek dituzten ikastetxeen izenak jarri ditugu.

• *Ikasleen nazionalitatea.* Ikasleen jatorriari dagokionez, azken bost ikasturteetako datuak honako hauek dira:

	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
<b>Ikastetxe publikoak</b>					
Espainiako nazionalitateko ikasleak (%)	90,60	90,65	90,68	90,49	90,04
Atzerriko nazionalitateko ikasleak (%)	9,40	9,35	9,32	9,51	9,96
<b>Ikastetxe pribatuak</b>					
Espainiako nazionalitateko ikasleak (%)	97,04	97,19	97,35	97,28	97,09
Atzerriko nazionalitateko ikasleak (%)	2,96	2,81	2,65	2,72	2,91

Aztertutako ikasturteetan, atzerriko nazionalitatea duten ikasleen ehunekoa ikastetxe publikoetan 6,7 puntu handiagoa izan da ikastetxe pribatuetan baino.

Ikastetxe publikoetako eta pribatuetako urteko batez bestekoa goiko taulan adierazitakoa bada ere, sei ikastetxe publikotan atzerriko nazionalitatea duten ikasleak ehuneko 30-42 dira, eta 22 ikastetxe publikotan ikasle atzerritarrak ehuneko 20-30 dira; ikastetxe pribatuetan, berriz, ehuneko hori 11-18 bitartekoa da zazpi kasutan eta 5-9 bitartekoa hamar kasutan.

Bosgarren eranskinean balio txikienak eta handienak jaso ditugu ikastetxe motaren eta ikasturtearen arabera, eta balio horiek izan dituzten ikastetxeen izenak jarri ditugu.



• *Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak.* Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 84. artikulua dioenez, hezkuntza-administrazioek ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan ikasleak onartzeko aukera arautuko dute eta, horretarako, hezkuntzarako eskubidea, berdintasun-baldintzetan sartzeko aukera eta gurasoek edo tutoreek ikastetxea aukeratzeko askatasuna bermatuko dituzte.

Ezartzen du, halaber, hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasleak ikastetxeen artean era egokian eta orekatuan banatzea bilatuko dela. Horrek berekin ekarri du BHP ikasleak (berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleak) eta HPB ikasleak (berariazko hezkuntza-premia larriagoak dituzten ikasleak) bereiztea.

Matrikula kopuru osoaren aldean, berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleen ehunekoak eboluzio hau izan du, ikastetxe motaren arabera:

	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
<b>Ikastetxe publikoak</b>					
BHP ikasleak matrikula guztien aldean (%)	5,27	6,72	7,19	7,65	8,47
HPB ikasleak matrikula guztien aldean (%)	1,44	1,53	1,53	1,66	1,57
Premiadun ikasleak, guztira, matrikula guztien aldean (%)	6,71	8,25	8,72	9,31	10,04
<b>Ikastetxe pribatuak</b>					
BHP ikasleak matrikula guztien aldean (%)	6,36	7,58	8,15	8,61	9,35
HPB ikasleak matrikula guztien aldean (%)	1,07	1,15	1,22	1,35	1,07
Premiadun ikasleak, guztira, matrikula guztien aldean (%)	7,44	8,73	9,37	9,96	10,43

Oro har, matrikulen guztizko kopuruarekin alderatuta, hezkuntza-premiak dituzten ikasleen ehunekoak handixeagoak dira ikastetxe pribatuetan; baina HPB ikasleen proportzioa pixka bat handiagoa da ikastetxe publikoetan, eta ikasle horiek behar dituzte baliabide gehien.

#### *Ikastetxe pribatueta irakaskuntzako gastua 2016an*

Ikastetxe pribatueta irakaskuntzan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak 2016an egindako gastua (itunen nahiz diru-laguntzen bidezkoa) 132,55 milioi eurokoa izan zen. Horietatik 78,09 milioi bideratu ziren derrigorrezko hezkuntzako zikloetara eta 36,15 milioi derrigorrezkoa ez den hezkuntzako zikloetara. Gainerako 18,31 milioiak ezin dira zuzenean lotu hezkuntza mota batekin edo bestearekin, aurrekontu-partidak identifikatzen dituzten kontzeptuek ez dutelako bereizketa horretarako biderik ematen.

Beste alde batetik, 2016an ikastetxe horiek guztira 450.000 euroko funtsak jaso zituzten toki entitateetatik.

#### *Hezkuntza itunen oinarriko alderdiak*

Jada aipatu dugunez, irakaskuntza ez-unibertsarioa emateko hezkuntza itunak dira ikastetxe pribatuen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren arteko harremanak arautzen dituzten tresna nagusiak. Ondoren haien alderdi nagusietako batzuk deskribatuko ditugu, nola funtzionatzen duten ulertzen laguntzen dutenak:

• *Itun motak.* Itun orokorrak derrigorrezko hezkuntza (Lehen Hezkuntza eta/edo Bigarren Hezkuntza) emateko egiten dira; itun bereziek, berriz, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzak (Haur Hezkuntzako hiru urtetik seira bitarteko bigarren zikloa eta Batxilergoa) finantzatzea dute helburu.

Itun orokorraren araubidea izateak berekin dakar aipatutako irakaskuntzak doan eman beharra, halako moldez non ezin baitira irabazizkoak izan ez eskola zerbitzuak eta jarduera osagarriak, ez eskolaz kanpokoak; horiek, betiere, borondatezkoak izanen dira.

Itun guztiek lau urte irauten dute, Lehen Hezkuntzako etapari dagozkionak izan ezik, horien iraupena sei urtekoa baita.

- *Ratioak unitate itundu bakoitzeko.* Honako hauek dira araudian ezarritako gutxieneko eta gehieneko ratioak, irakaskuntza-etaparen arabera:

Irakaskuntza-etapa	Gehieneko ratioa	Batez besteko ratio gutxienekoa	
		Iruña eta Iruñerria	Nafarroako gainerako eskualdeak
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	25	21	18
Batxilergoa	35	27	27
Lehen Hezkuntza	25	21	19
DBH	30	26	24

Horiek dira gela bakoitzeko ezarritako ikasle ratioak, baina araudiak aukera ematen du, zenbait egoeratan, kopuru horiek gutxienekoen azpitik edo gehienekoen gainetik egoteko, aldez aurretik agintaritza eskudunak baimena ematen badu.

- *Langileak.* Ikastetxe itunduek kontratatzen dituzte langileak, eta prozeduran publizitatearen, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak bete behar dira, araudiak ezartzen duen bezala.

Langile horiei funts publikoekin guztiz edo zati batez sostengatutako irakaskuntza pribatuko Estatuko hitzarmen kolektiboa, ikastolen sektoreko hitzarmen kolektiboa (hala behar denean), eta, aurreko hitzarmenak eragindako irakaskuntza itunduaren sektorean, hobekuntzarako akordioa aplikatzen zaizkie; zehazki, aztertuko dugun aldian, akordio hori 2013an onetsi eta 2017ra arte luzatutakoa da. Ordutik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, patronalek eta irakaskuntza itunduko sindikatuek akordio berri bat onestea adostu zuten.

Langile horiei hileko nominak ordaintzeko prozedura azaltzen da hurrengo puntuan, moduluari buruzkoan.

- *Moduluak.* Itunen ondoriozko gastuak modulua du oinarri, hau da, hezkuntza itunduko unitate bakoitzari eman behar zaiona bere mailaren arabera kuantifikatzen duen kontzeptu ekonomikoa. Hezkuntza maila nahiz modalitate ezberdinetan ikastetxe itunduen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren gutxieneko zenbatekoa Estatuak ezartzen du. Gero, autonomia erkidego bakoitzak hura onesten du bere aurrekontu orokorreari buruzko legean. Adibide gisa, 6. eranskinen jaso dira 2016rako ezarritako moduluen zenbatekoak, unitate itundu bakoitzeko irakasle ratioekin.

Moduluak kontzeptu hauetan banatzen dira:

- a) Irakasleen soldatak, zama sozialak barne, irakaskuntza maila bakoitzean, eta irakasle titularren eta agregatuen ratioa unitate itundu bakoitzeko.

Langile horien nomina Hezkuntza Departamentuak egiten du eta zuzenean ordaintzen dio irakasleari (ordainketa eskuordetua), baina horrek ez du esan nahi alderdien arteko lan-harremanik dagoenik.

- b) Gastu aldakorrak: irakasleen antzintasunaren kostuaz eta Gizarte Segurantzaren duen eraginaz gain, irakasleen ordezkapenak, zuzendaritzako osagarria eta Langileen Estatutuaren ondoriozko betebeharrak ere jasotzen dira<sup>3</sup>. Diru kopuru horiek funts orokor batean biltzen dira, zeina irakaslez irakasle banatzen baita ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzaren egoeraren arabera.

Antzintasun-osagarria eta horrek Gizarte Segurantzaren duen eragina, zuzendaritzako osagarria eta eginkizun sindikalekin lotutakoak, horiek ere Nafarroako Gobernuak ordaintzen dizkio pertsona bakoitzari, ordainketa eskuordetuaren bidez; irakasleen ordezkapenak, aldiz, ikastetxeari ordaintzen zaizkio ebazpen bidez, eta aldez aurretik gastua justifikatu behar da (kontratuak aurkeztuz).

- c) Beste gastu batzuk: administrazio eta zerbitzuetako langileak, ikastetxeko mantentze, kontserbazio eta funtzionamendu gastu arruntak, inbertsio errealean birjartzea, zuzendaritzan eta

<sup>3</sup> Artikulu horrek ezartzen duenez, lantoki bakoitzean batzordeko kideek edo langileen ordezkariak hilero ordu ordainduen kreditu bana izateko eskubidea dute, beren ordezkaritza eginkizunetan aritzeko.

eginkizun pedagogikoetan laguntzeko beste kargu batzuk, hezkuntza bereziko ikastetxeetako langile osagarriak, eta abar.

Administrazio eta zerbitzuetako langileen gastuak eta zuzendaritzan eta eginkizun pedagogikoetan laguntzeko gastuak ikastetxeari zuzenean ordaintzen zaizkio, ordainketa eskuordeturik gabe.

Moduluaren zenbatekoa Nafarroan handiagoa da informazioa lortu ahal izan dugun gainerako autonomia erkidegoetan baino, Euskal Autonomia Erkidegoan izan ezik, taula honetan ageri den bezala:

	2. zikloa Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH 1.a eta 2.a	DBH 3.a eta 4.a	Batxilergoa
Estatuak ezarritako gutxienekoa	37.823	37.823	54.855	61.939	73.804*
EAE	64.742	67.810	87.059	105.595	106.748
Nafarroa	59.361	68.574	83.406	95.555	90.978
Murtzia	58.329	63.787	87.410	93.811	92.903*
Madril	53.797	55.024	74.619	79.243	88.731*
Gaztela-Mantxa	40.313	43.480	59.311	63.157	75.273*

\* Kasu horietan, dena delako administrazioak zenbateko horri 3.606,00 euro kendu ahalko dizkio gehienez, ikasleen finantzaketa osagarriaren ondorioz, hezkuntza itun berezi horiek partzialak baitira.

- *Itunen kudeaketa.* Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentua bi zuzendaritza nagusitan banatuta dago: Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia eta Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia.

Zuzendaritza horietan ez dago berariazko unitate organikorik itunak edo ikastetxeek jasotzen dituzten diru-laguntzak gainbegiratzeaz arduratzen denik, aitzitik, atal edo zerbitzu bakoitza ikastetxe pribatuentzako funts publiko horiekin zerikusia duten alderdietako batzuk aztertzeaz arduratzen da.

### *Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusia*

Zuzendaritza horren egituran bost zerbitzu daude, eta horietako bat Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua da, zenbait ataletan banatua. Atal horien artean, aipatu behar ditugu, itunen kudeaketan parte hartzen dutelako, Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atala, Nominen eta Gizarte Aseguruen Atala —Itunpeko eta Diruz Lagundutako Ikastetxeen Nomina Bulegoarekin—, eta Azterlan Ekonomikoen Atala.

Nabarmendu behar dugu, gainera, Hezkuntzako Teknologien eta Informazio Sistemen Zerbitzua, EDUCA plataforma informatikoaren kudeaketaz arduratzen dena. Plataforma hori nahitaez erabili behar da ikastetxe publiko guztietan.

Ikastetxe itunduek ere aplikazio horren zati txiki bat erabili behar dute, Hezkuntza Departamentuaren eta ikastetxe itunduen arteko hitzarmenaren ondorioz, eta oinarrizko datu hauek sartu behar dituzte, besteak beste: ikasleen aurrematrikulak eta matrikulak (pertsona BHP edo HPB ikaslea den adierazita), eskola egutegia, taldeen eta irakasleen ordutegiak, amaierako kalifikazioak, langileen titulazioak eta prestakuntzarengatiko akreditazioak, ikasliburuaren doakotasuna kudeatzearekin zerikusia duten datuak, eta ebaluazio diagnostikoen emaitzak.

### *Hezkuntza Zuzendaritza Nagusia*

Zuzendaritza horren barruan dago Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua. Organo horren ardura da legeak betetzen diren zaintzea eta Hezkuntza Administrazioa eta ikastetxeak aholkatu, gainbegiratu, ebaluatu eta informatzea, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetzeko.

Zerbitzu horren antolaketa eta funtzionamendua 80/2008 Foru Dekretuak arautzen ditu. Dekretu horrek dioenez, unitateak Plan Estrategikoa izanen du, ikuskapenaren epe ertaineko gidalekorrak islatu eta helburuak, estrategiak eta barne ekintzako ildoak ezarriko dituena; urteko jarduketaren planen bidez zehaztuko da, eta horien betetze mailaren berri emanen da zerbitzuaren oroit-

dazkian. Planen aplikazio eremuan sartzen dira Nafarroako hezkuntza sistema ez-unibertsitaria osatzen duten ikastetxe publiko zein pribatu, programa, zerbitzu eta jarduera guztiak.

Aztertzen ari garen aldirako, 2013ko irailean onetsi zen plana da aplikagarria, alegia, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren 2013-2017 bitarteko Plan Estrategikoa, eta horri lotuta urtero onetsitako jarduketa planak ere aplikatu behar dira.

Antolamenduaren, Orientazioaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak ere itunen kudeaketan parte hartzen du Aniztasunarekiko Arretaren, Orientazioaren eta Hezkuntza Premia Berezien Atalaren bitartez, azken horrek zehazten baitu zer giza baliabide behar dituzten horrelako premiak dituzten ikasleek; halaber, egoera sozioekonomiko behartsuan dauden ikasleen ekipamendurako eta jantokirako laguntza ekonomikoez arduratzen da.

### III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentu-eskaerak kontuan hartuta, honako hauek izan ziren lan honen helburuak:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki enteek 2012-2016 bitartean irakas-kuntza pribatu ez-unibertsitariorako jarri dituzten funts publikoak kuantifikatu eta aztertzea.
- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki enteek ikastetxe pribatuei lurzoru publikotik egin dizkieten lagapenak aztertzea.
- Ikastetxe pribatuei eragiten dieten zerga salbuespenak, kenkariak eta mota guztietako ho-bari fiskalak aztertzea.
- Hezkuntza Departamentuak ikastetxe itundu eta diruz lagunduei egindako kontrolak eta ikuskapenak aztertzea.
- Ikastetxe itunduen lagin bat eta diru-laguntzak jasotzen dituen ikastetxe bat fiskalizatzea, jaso dituzten funtsen euskarria eta justifikazioa egiaztatuz, langileei dagozkien funtsak barnean hartuta.
- Ikastetxe publiko bat eta ikastetxe itundu bat aukeratzea, antzeko ezaugarriak dituztenak (kokalekua, guztizko ikasle kopurua eta abar), kasu bakoitzean jarritako funts publikoak konpara-tzea, eta gela bakoitzeko gastua kalkulatzeko.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- Irakaskuntza pribatuarekin zerikusia duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa-ren aurrekontu-partiden betetzea, 2012-2016 aldira.
- Ikastetxe pribatuei emandako diru-laguntzei buruz Nafarroako 272 udalek emandako infor-mazioa.
- Lehen aipatutako udalek eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Ondare Zerbitzuak ikastetxe pribatuentzako lursail edo eraikin publikoen lagapenei buruz emandako da-tuak.
- Ikastetxe pribatuei eragiten dien zerga araudia.
- Ikastetxe kopuruari, ikasleei eta ratioei buruz Hezkuntza Departamentuak emandako da-tuak.
- Laginerako hautatu diren bederatzi ikastetxeen gastu diruz lagunduen euskarria. Ikaste-txeak honako hauek dira: Miravalles-El Redín ikastetxea, San Fermin ikastola, San Cernin ikaste-txea, Santa María la Real ikastetxea, La Compasión-Escolapios ikastetxea, Compañía de María ikastetxea, Lizarra ikastola, Garcés de los Fayos ikastola eta Altsasuko Jesusen Bihotza ikaste-txea.
- Elkarrekin konparatzeko hautatu diren ikastetxeen gastuak. Ikastetxe horiek Iruñeko San Juan de la Cadena ikastetxe publikoa eta Iruñeko Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús ikas-tetxe itundua dira.

Lana egin da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzor-deak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan garatutako sektore publikoa-ren auditoriari buruzko printzipioei eta araei jarraituz, eta, funtsean, fiskalizazio operatiboei eta betetzeari buruzko fiskalizazioei dagokien hirugarren eta laugarren mailako ISSAI-ES arauak aplikatu dira. Lanaren helburuaren eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun proze-dura tekniko guztiak erabili dira.

Gure lanean eragina izan duen mugak zerikusia du ikastetxe itundu eta diruz lagunduen onura fiskalen kuantifikazioarekin, zeina parlamentu-eskaera baten bidez eskatu baita. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren onura fiskalen aurrekontuan ez daude xehakaturik zerga bakoi-tzari dagozkion zenbatekoak, eta horregatik ez dugu sozietateen gaineko zergan eta balio eran-tsiaren gaineko zergan onura horiek kuantifikatu ahal izateko daturik eskuratu.

Bestalde, jasotako parlamentu-eskaerekin zerikusia duten alderdi batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- Gastua aurrekontu-partidaren arabera xehakatzeko, azken bost urteetan guztira 10.000 eurotik gorako betetze maila izan duten partidak aztertu ditugu, parlamentu-eskaeran eskatutako kontzeptu guztiak identifikatuz. 2012-2016 bitartean goian adierazitakoa baino gastu txikiagoa izan duten partidak ez dira aintzat hartu eta ez da kalkulatu haiek osatzen zuen kontzeptu zehatza, identifikazio horrek gehiegi luzatuko zukeelako gure lana, ondorioetan aldaketa nabarmenik eragin gabe.

- Bekak, liburuak eta eskola materiala: Ganbera honen iritziz, horiek familientzako laguntzak dira eta ikastetxe publikoetan dabilzan ikasleei ere ematen zaizkie, ikastetxeentzako laguntzak izan gabe; beraz, kontzeptu horiek ez dira sartu gure analisian.

- Ikastetxe horiek Estatutik eta Europatik jasotako diru-sarrerara publikoak, eta iturri pribatuetako diru-sarrerak: kasu honetan, Ganbera honek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik jasotako diru-sarrerara publikoak fiskalizatzeko soilik du eskumena. Lagineko ikastetxeek ez digute informaziorik eman jasotako gainerako diru-sarrerei buruz, alegia, aipatutakoez bestelako iturrietatik jasotakoei buruz, eta horrelakoak ezin izan ditugu kuantifikatu<sup>4</sup>.

- Eskatu zen irakaskuntza itunduko ikasleen kostua kalkulatu zedila irakaskuntza itunduak 25 pertsonako ratioa izanen balu, 30eko ratioaren orde; bada, azken ratio hori ez da hezkuntzako ziklo guztietan aplikagarria, eta gainera ez dira ikastetxe itundu guztiak horraino iristen. Beraz, uste dugu ez duela zentzurik analisi hori egiteak.

- Nafarroan irakaskuntza pribatuko sareak jasotzen dituen funtsen auditoria publikoa eta sare publikoarekiko konparazioa egitea ahalbidetzen duten irizpide objektiboak prestatzeari dagokionez, uste dugu baldintzatzaille askok mugatzen dituztela ikastetxeen arteko konparazioak. Arrazoi horrengatik, antzeko ezaugarriak dituzten ikastetxe publiko bat eta ikastetxe itundu bat aukeratu ditugu gastuen arteko konparazioa egiteko, ausaz aukeratutako bi ikastetxeren arteko diferentziek ondorioak distortsionatu ez zitzaizten.

- Kongregazio edo kooperatibetako zein erlijiosok edo kidek jasotzen duten ordainketa eskuordetua, zein jarduerarengatik jasotzen duten, eta zer adin duten: hartutako laginean aztertu dugu alderdi hori, eta ez ikastetxe itundu guztietan.

- Irakastordu kopuruaren banaketari dagokionez, EDUCA plataformak ematen duen informazioa aztertu dugu. Plataforma horrek ezartzen ditu irakasleen eskola-ordutegiak eta zehazten du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ordaindu beharreko modulua.

- Azkenik, galdetu da ea ikastetxe pribatuen patronalek baduten langilerik bere soldata diru-laguntza publikoen kargura jasotzen duenik. Hori dela eta, honako hau aztertu dugu: ea irakasleek ordainketa eskuordetuaren bidez jasotzen duten beren nomina; eta bestelako gastuen moduluaren bidez finantzatzen den langile ez irakasleen gastuaren euskarria.

<sup>4</sup> Salbuespena San Fermin ikastola eta Santa María la Real ikastetxeak dira, Europatik jasotako diru-sarrerara publikoen berri eman baitziguten, eta horien zenbatekoa ez da adierazgarria.

#### IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren konklusio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, bai eta irakaskuntza pribatu ez-unibertsitariorako funts publikoen kudeaketa hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

##### IV.1. IRAKASKUNTZA PRIBATURAKO FUNTS PUBLIKOAK (2012-2016)

###### *Irakaskuntza pribatu ez-unibertsitarioan egindako gastua*

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta udalen aurrekontuetatik irakaskuntza pribaturako egindako gastua 133 milioi eurokoa izan zen 2016an, beheko taulan ageri den bezala (euroak milioikoetan):

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016	Aldea (%) 2016/2012	Aldea (%) 2016/2012
NFKAren gastua	125,02	128,07	130,28	131,74	132,55	647,66	6	1
Toki entitateen gastua	0,38	0,37	0,48	0,42	0,45	2,11	18	7
Guztira	125,40	128,44	130,76	132,16	133,00	649,77	6	1

2012-2016 bitartean irakaskuntza pribatuan guztira 649,77 milioi euroko gastua egin zen, batez beste 129,95 milioi urtean; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagozkio ia gastu guztiak, ehuneko 99,7 hain zuzen.

###### *Irakaskuntza pribatuan egindako gastua hezkuntza motaren arabera*

Finantzatutako hezkuntza derrigorrezkoa den (Lehen Hezkuntza eta DBH) edo ez den (Haur Hezkuntza eta Batxilergoa) erreparatuta bana daiteke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gastua, eta emaitzak honako hauek dira (euroak milioikoetan):

	2012	2013	2014	2015	2016	Aldea (%) 2016/2012	Aldea (%) 2016/2015
Derrigorrezko hezkuntza	71,44	74,90	76,20	77,40	78,09	9	1
Derrigorrezkoa ez den hezkuntza	35,39	36,16	36,26	36,31	36,15	2	-0,4
Sailkaezina	18,19	17,01	17,82	18,03	18,31	1	2
Guztira	125,02	128,07	130,28	131,74	132,55	6	1

Gastu osoaren ehuneko 58 derrigorrezko hezkuntza finantzatzeko egin da, ehuneko 28 derrigorrezkoa ez den hezkuntza finantzatzeko, eta gainerako ehuneko 14a aurreko kontzeptuetako ezeinekin zuzenean lotu ezin diren gastuei dagokie.

Udalek egindako gastua ezin zaio zuzenean esleitu hezkuntza mota jakin bati; beraz, aurreko taulan "sailkaezin"tzat jotzen denari gehitu ahal zaio.

###### *Irakaskuntza pribatuan egindako gastua kontzeptuka*

- *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren gastua.* 2012-2016 bitartean milioi bat euro gainditu zituzten kontzeptuetako gastuak gastu osoaren 99 egiten du, eta honako hau da (euroak, milioikoetan):

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016	Aldea (%) 2016/2012	Aldea (%) 2016/2015
Lehen Hezkuntza – Nominak eta Giz. Seg.	33,15	33,52	34,40	35,16	35,54	171,76	7	1
Bigarren Hezk. 2. zikloa – Nominak eta Giz. Seg.	14,90	14,82	15,30	15,65	15,96	76,64	7	2
Haur Hezk. 2. zikloa – Nominak eta Giz. Seg.	14,30	14,04	13,71	13,76	13,60	69,41	-5	-1
Bigarren Hezk. 1. zikloa - Nominak eta Giz. Seg.	12,43	12,94	12,71	12,25	12,25	62,58	-1	-
Batxilergoa – Nominak eta Giz. Seg.	8,21	8,01	8,19	8,34	8,47	41,21	3	2
Lehen Hezkuntza – Ordezk. eta best. gastuak	5,98	7,37	7,57	7,83	8,04	36,79	34	3
Adingabeentzako laguntza	4,21	4,31	4,63	4,76	4,79	22,70	14	1
Haur Hezk. 2. zikloa – Ordezk. eta best. gastuak	2,92	3,55	3,66	3,61	3,53	17,27	21	-2
Bigarren Hezk. 2. zikloa - Ord., best. gast. eta diru-lag.	2,52	3,27	3,33	3,51	3,29	15,92	31	-6
Bigarren Hezk. 1. zikloa - Ord., best. gast. eta diru-lag.	2,45	2,99	2,89	3,00	3,01	14,35	23	-
Goi mailako hez. zikloak-Nominak eta Giz. Seg.	2,55	2,62	2,84	2,98	3,11	14,10	22	5
Erdi mail. hez. zikloak - Ord., best. gast. eta diru-lag.	2,81	2,89	2,96	2,68	2,43	13,76	-13	-9
Erdi mail. hez. zikloak-Nominak eta Giz. Seg.	2,85	2,82	2,65	2,62	2,75	13,69	-3	5
Hezkuntza Berezia diru-laguntza-Nominak eta Giz. Seg.	2,58	2,54	2,58	2,60	2,60	12,91	1	0,2
Berriazko hezk. premiak - Nominak eta Giz. Seg.	2,70	2,63	2,62	2,52	2,39	12,86	-12	-5
Hezkuntza Berezia - Ord., best. gast. eta diru-lag..	2,00	2,28	2,30	2,43	2,47	11,47	24	2
Batxilergoa	1,38	1,77	1,74	1,85	1,74	8,48	26	-6
Berriazko hezk. premiak diru-lag.	0,93	1,07	1,05	1,11	1,11	5,27	20	-
Zailtasunak dituzten ikasleentzako arreta diru-lag.	1,05	1,05	1,05	1,05	1,05	5,24	-	-
Enplegu Plana. Lanbide Heziketa	0,99	0,39	0,43	0,81	0,75	3,37	-24	-8
Immigrazioa eta gutx. kulturalak-Nominak eta Giz. Seg.	0,61	0,55	0,53	0,55	0,55	2,79	-10	-
PFEZaren % 0,7ko funtsa	0,37	0,45	0,49	0,54	0,55	2,40	46	1
Goi mailako hez. zikloak – Ord. eta best. gastuak	0,38	0,46	0,53	0,49	0,52	2,37	37	6
Prestakuntza eta enplegurako programa mistoak	0,45	0,35	0,57	0,28	0,49	2,14	9	77
Immigrazioa/gutxiengo kulturalak, laguntzak	0,38	0,39	0,39	0,40	0,39	1,95	3	-1
Enplegu plana. Laneratzeko programak.	0,23	0,26	0,28	0,26	0,27	1,26	17	4
Eskola garraioa	0,22	0,27	0,27	0,15	0,14	1,06	-36	-7
El Molinorekiko hitzarmena	0,19	0,19	0,22	0,22	0,22	1,04	16	-
Beste aurrek. partida batzuk (95 partida)	1,28	0,27	0,39	0,33	0,54	2,87	-58	47
<b>Guztira</b>	<b>125,02</b>	<b>128,07</b>	<b>130,28</b>	<b>131,74</b>	<b>132,55</b>	<b>647,66</b>	<b>6</b>	<b>1</b>

Guztizko gastua 2012-2016 bitartean 647,66 milioi eurokoa izan zen, eta urteko batez besteko gastua 129,53 milioiokoa. Zenbateko hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aurrekontuko gastu osoen ehuneko 3,4 da.

Ikastetxe pribatuak irakasleen nominen ordainketa eskuordetuari dagokion gastua da kontzeptu nagusia, guztira 477,95 milioiko gastuarekin (gastu osoaren ehuneko 74) eta urtean batez beste 95,59 milioiko zenbatekoarekin.

Egiaztatu dugu badi-rela zenbait akats nominetan, gastua zikloaren eta/edo hezkuntza motaren arabera esleitzerakoan eginak. Batzuetan hala gertatzen da irakaskuntza hainbat ziklotan ematen delako, baina aipatutako ehunekoak ez lirakeke nabarmen aldatuko akats horiek zuzenduko babilira.



Irakasle ez diren langileen gastuarekin batera beste kontzeptu batzuk jarri dira, hala nola ikastetxeen mantentzea, hezkuntza motarekin identifikatutako aurrekontu-partidetan, eta 148,38 milioi euro egiten dute aldi osoan, 29,68 milioiko batez besteko gastuarekin; guztizkoaren ehuneko 23 dira. Ezin da bereizi zer zati dagokion aipatutako kontzeptuetako bakoitzari, "bestelako gastu" gisa identifikatutako modulu zatia jasotzen dutelako aurrekontu-partida horiek.

Gastuaren gainerako ehuneko hiruan beste kontzeptu batzuk sartzen dira, hala nola eskola garraioa, El Molinorekiko berariazko hitzarmena eta abarrekoak. Bestalde, 7. eranskinean jaso ditugu 2012-2016 aldi osoan 10.000 eurotik milioi bat eurora bitarteko gastua izan zuten aurrekontu-partidak.

• *Udalen gastua.* Toki entitate horiek ikastetxe pribatuetan egindako gastua 2,11 milioikoa izan zen aztertutako aldian; hona hemen horren bilakaera kontzeptuka:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016	Aldea (%) 2016/2012	Aldea (%) 2016/2015
Funtzionamendu gastuak	272.467	248.243	272.019	239.390	272.443	1.304.562	-	14
Eskolaz kanpoko jarduerak eta beste ekitaldi batzuk	81.812	81.685	81.455	84.349	68.857	398.158	-16	-18
Dir-lag. eta hitzarmeneko ekarp. - Ilundain Haritz Berri Fund.	20.000	0	106.200	86.668	72.827	285.695	249	-17
Jantokia, materialak eta ikasleen garraioa	8.021	5.727	19.687	7.808	4.126	45.369	-49	-47
Ikastetxe berriko obrak egitea	0	38.500	0	0	0	38.500	-	-
Vianako Erentzun Ikastolaren zorraren amortizazioa	0	0	0	0	30.000	30.000	-	-
Ikastetxeetako obretarako laguntzak (EIOZa adinako zenbatekoa)	0	0	0	5.712	4.336	10.048	-	-24
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>382.300</b>	<b>374.155</b>	<b>479.362</b>	<b>423.926</b>	<b>452.587</b>	<b>2.112.331</b>	<b>18</b>	<b>7</b>

Kasu honetan, guztizko gastuaren ehuneko 62 ikastetxeen funtzionamendu gastuak finantzatzeko izan da, eta ehuneko 19 eskolaz kanpoko jarduerak eta ikastetxeek antolatutako bestelako ekitaldiak diruz laguntzeko. Funts horiek 34 ikastetxetara bideratu zituzten 26 udalek, guztira.

Honako hauek dira 2012-2016 bitartean 50.000 euro baino gehiago jarri zituzten udalak:

Udala	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira, 2012-2016
Iruña	73.667	76.507	76.829	77.854	63.371	368.228
Aranguren	20.000	0	106.200	86.668	72.827	285.695
Bera	48.192	49.357	45.662	40.771	51.404	235.385
Altsasu	45.000	45.000	45.000	45.000	45.000	225.000
Etxarri Aranatz	51.480	25.740	55.059	29.255	55.000	216.534
Olazti	38.181	21.207	21.827	18.619	19.422	119.255
Viana	15.534	12.300	12.300	15.300	40.300	95.734
Lesaka	21.244	19.648	18.103	15.964	17.971	92.931
Arbizu	4.171	19.702	20.362	18.488	18.989	81.713
Lakuntza	11.500	13.655	13.700	13.700	13.950	66.505
Urdiain	12.385	13.020	13.484	13.500	13.500	65.889
Tafalla	998	39.071	15.927	5.757	588	62.341
Zangoza	12.000	12.000	12.000	12.000	12.000	60.000
Gainerako udalak*	27.948	26.949	22.907	31.050	28.267	137.121
<b>Guztira</b>	<b>382.300</b>	<b>374.155</b>	<b>479.362</b>	<b>423.926</b>	<b>452.587</b>	<b>2.112.331</b>

\* Ziordia, Barañain, Arruazu, Lizarra, Uharte Arakil, Bakaiku, Mendabia, Iturmendi, Berriozar, Andosilla, Ergoiena, Oibar eta Lodosa.

*Gastua ikastetxez ikastetxe*

Txosten honen 8. eta 9. eranskinetan ikastetxez ikastetxe xehakaturata ageri dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta udalek, hurrenez hurren, 2012-2016 bitartean emandako funts publikoak.

Eranskinetako datuen azterketak erakusten duenez, 29 ikastetxek 2012-2016 bitartean hamar milioi euro baino gehiago jaso zituzten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik eta toki entitateetatik, guztira gastu osoaren ehuneko 78; eta horien artean nabarmentzen dira 2012-2016 bitartean 20 milioi euro baino gehiago jaso zutenak (gastu osoaren 37, guztira):

	2012	2013	2014	2015	2016	Ikasleak, guztira 2016-2017	Talde kop. 2016-2017
Miravalles - El Redín	5.41	5,75	5,90	6,02	6,16	2.332	83
Fundacion Educativa Santo Domingo	5.10	5,32	5,36	5,47	5,38	1.696	70
Ilundain Haritz Berri Fundazioa <sup>5</sup>	5.61	5,40	5,37	4,29	4,31	Ez dago daturik	
San Ignacio	4.74	4,90	4,83	4,95	4,92	1.751	60
San Cernin	4.65	4,77	4,80	4,81	4,81	1.653	60
Santa María La Real	4.34	4,60	4,63	4,68	4,74	1.774	60
San Fermin Ikastola	4.40	4,61	4,64	4,67	4,59	1.587	59
Escuelas Salesianas Don Bosco	4.47	4,47	4,56	4,52	4,55	861	37
Liceo Monjardín	4.64	4,48	4,48	4,45	4,45	1.688	58
Irabia-Izaga	3.62	3,93	4,13	4,36	4,61	1.740	66

Aipatu beharra dago Miravalles-El Redín ikastetxeak bi egoitza dituela, bata Zizur Txikian eta bestea Iruñean; bestalde, Fundación Educativa Santo Domingok lau ikastetxe ditu, Tuteran, Burlatan eta Atarrabian kokatuak, eta Irabia-Izagak bi egoitza ditu, Cordovillan eta Burlatan kokatuak. Ikastetxe horiek dira, gainera, ikasle gehien jasotzen dituztenak eta ikasgela gehien dituztenak.

Escuelas Salesianas Don Bosco ikastetxeko taldeen kopurua azpimarratu behar da, gainerako ikastetxeena baino nabarmen txikiagoa delako. Kontuan hartu behar da Escuelas Salesianas Don Bosco ikastetxeko ikasleen ehuneko 66 Lanbide Heziketako ziklokoak direla (goiko taulako gainerako ikastetxeek ez dute ematen ziklo hori) eta gainerakoak DBHkoak eta Batxilergokoak; taldeen kopuruari dagokionez, 37etatik 26 Lanbide Heziketakoak dira, eta gainerakoak aipatutako beste etapetakoak. Hezkuntzako etapa horietako moduluak, batik bat Lanbide Heziketakoak, altuenak dira; izan ere, 2016ko 4,55 milioi euroetatik gutxienez 3,26 Lanbide Heziketari dagozkio, eta gainerakoak beste etapei.

*Gastua, finantzaketa araubidearen arabera*

Beheko taulan funts publikoak xehakatu ditugu, ikastetxeak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin duen harremana itun bidez ala diru-laguntza bidez gauzatzen den kontuan hartuta:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016	Aldea (%) 2016/2012	Aldea (%) 2016/2015
Itunak	115.14	118,91	120,43	121,71	122,39	598,58	6	1
Diru-laguntzak	9.88	9,16	9,85	10,03	10,16	49,08	2	1
Orokorra, guztira	125.02	128,07	130,28	131,74	132,55	647,66	6	1

Ikusten denez, gastu osoaren ehuneko 92 ikastetxe itunduei dagokie, eta gainerako ehuneko 8a dagokie diru-laguntzak jasotzen dituzten ikastetxeei.

<sup>5</sup> Ikastetxe horretako ikasleak beste ikastetxe batzuetan matrikulatuta daude, bertara joaten dira beren arazoengatik baina bertan matrikulatuta egon gabe; beraz, ez dago daturik.

Laburbilduta, 2016an irakaskuntza pribatuan finantzatutako gastua 133 milioi eurokoa izan zen, eta 2012koaren eta 2015ekoaren aldean hurrenez hurren ehuneko sei eta ehuneko bat hazi zen; gastu horren ehuneko 99,7 Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak hartu zuen bere gain, itunak finantzatzeko, gehienbat (gutzizkoaren ehuneko 92). Beste alde batetik, funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako gutzizko ikasle kopurua ehuneko bost hazi da 2012-2016 bitartean, eta gelen kopurua (ikastetxeak finantzatzeko erabiltzen den parametroa) ehuneko bi. Alabaina, derrigorrezko hezkuntzako gelak ehuneko lau gehitu dira, eta derrigorrezkoa ez den hezkuntzakoak ehuneko bi gutxitu.

#### IV.2. LURZORU PUBLIKOAREN LAGAPENAK IKASTETXE PRIBATUENTZAT

Nafarroako 272 udalei eta Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Ondare Zerbitzuari informazioa eskatu diegu ikastetxe horiei lagatako lurzoru publikoari buruz. Hona emaitzak:

Lagatzailea	Lagapen-hartzailea	Kanona	Lagapen urtea	Lagapenaren epea	Lagapen-hartzailearen eginbeharrak
Berako Udala	Labiaga ikastola	Ez	1996	50 urte	Euskarazko irakaskuntza
Berako Udala		Ez	1982	Ez dago jasota	Euskarazko irakaskuntza
Ondare Zerbitzua	Ilundain Haritz Berri Fundazioa	Ez	2008	5-20 urte	Berariazko irakaskuntza
Ondare Zerbitzua	Nuestra Señora del Puy	Ez	1978	20 urte*	Irakaskuntza ertainak
Tafallako Udala	Garcés de los Fayos ikastola	Bai	2012	75 urte	Bigarren Hezkuntza
Arbizuko Udala		Ez	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota
Etxarri Aranazko Udala		Ez	1986	Mugagabea	Irakaskuntza
Etxarri Aranazko Udala	Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba (Andra Mari ikastola)	Ez	1987	Ez dago jasota	Haur eta Lehen Hezkuntza
Etxarri Aranazko Udala		Ez	1998	50 urte	Ikastola handitzea
Etxarri Aranazko Udala		Bai	2012	99 urte	Ikastetxea eraikitzea
Olaztiko Udala		Ez	Ez dago jasota	2012an amaitu zen	Ez dago jasota
Altsasuko Udala	Gurasoen irakaskuntza-kooperatiba (Iñigo Aritza ikastola)	Bai	2012	50-99 urte	0-6 urtekoen ikastetxea
Altsasuko Udala		Ez	1977	Ez dago jasota	OHOkoko irakaskuntza elebiduna
Abartzuzako Udala	Andéraz Escuelas Pías	Ez	Ez dago jasota	Ez dago jasota	Ez dago jasota
Berriozarko Udala	Lantxotegi Elkartea	Ez	2011	15 urte	HLPP programak ematea
Berriozarko Udala		Ez	2016	15 urte	HLPPE programak ematea
Eguesibarko Udala	Santa María La Real	Bai	2005	99 urte	Irakaskuntza
Iruñeko Udala	Francisco de Jaso ikastola	Bai	1997	50-99 urte	Ikastetxea eraikitzea
Iruñeko Udala	San Cernin	Bai	1990	50-99 urte	Ikastetxea eraikitzea

\* Luza daitekeen epea da, eta artzapezpikutzak konpondutzat eman arte iraunen du.

Guztira, 11 ikastetxeri egindako 19 lagapen daude jasorik, eta horien artean nabarmentzen dira hiru ikastetxek osatzen duten gurasoen irakaskuntza-kooperatibari egindakoak, horietako biri zenbait lurzati laga baitzaizkie.

Lagapena doakoa da 13 kasutan, eta udal lagatzaileak ikastetxeei kanona kobratzen die gainerako sei kasuetan:

	Lagapen-hartzailea	Kanona	Lagapen urtea	Lagapenaren epea
Tafallako Udala	Garcés de los Fayos ikastola	11.000 euro urtean	2012	75 urte
Altsasuko Udala	Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba (Iñigo Aritza ikastola)	1.000 euro urtean	2012	50-99 urte
Etxarri Aranazko Udala	Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba (Andra Mari ikastola)	30 euro urtean (berrikuspena KPIarekin)	2012	99 urte
Eguesibarko Udala	Santa María La Real	25.350 euro urtean	2005	99 urte
Iruñeko Udala	Francisco de Jaso ikastola	11.797 euro urtean (berrikuspena KPIarekin)	1997	50-99 urte
Iruñeko Udala	San Cernin	10.368 euro urtean (berrikuspena KPIarekin)	1990	50-99 urte

Aurreko datuetatik nabarmendu behar dugu ezen, Garcés de los Fayos ikastolaren kasuan, adierazitako zenbatekoa eskrituran jasotakoa dela, baina diru kopuru horren kobrantza (11.000 euro urtean) konpentsatzeko, Udalak ikastetxe horren kanpoaldeko kirol instalazioetako batzuk erabiltzen dituela.

Lagapen horiek araudiari noraino egokitzen zaizkion argitzeko azterketa orokorra egin dugu eta ondorio hauek atera ditugu:

- Lagapenak 70eko hamarkadatik hona egin dira, eta bitarte horretan araudi aplikagarria nabarmen aldatu da; lagapen horien ezaugarriak askotarikoak dira izapidetzeari, kanona ezartzeari edo ez ezartzeari eta beste alderdi batzuei dagokienez. Hala ere, kontuan hartu behar da lurzoru publikoa ikastetxeei lagatzea, itunduak izan edo ez, beti dela bateragarria ondasun bat hezkuntza bezalako erabilera orokor bati atxikitzearekin.

- Gaur egun, udal eraikinen eta lurzoru publikoaren lagapenari aplikatu beharreko arau substantiboak Toki Administrazioari buruzko Foru Legea eta Toki Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamendua dira; foru lege horrek ezartzen duenez, pertsona edo erakunde jakin batek erabilera publikoko ondasunak modu pribatiboan, besteri erabilera mugatuz edo galaraziz, erabili ahal izateko, administrazio-emakida lortu behar du; aldez aurretik, baldintzen agiri arauemailea onetsi behar da, eta emakida adjudikatzerakoan publizitatearen eta lehiaren printzipioak bete behar dira. Gainera, aprobetxamendu berezi hori irabazizkoa da, eta irabazia txosten ekonomiko batean kuantifikatu behar da merkatuko balioak kontuan hartuz. Legez ezarritako kasuetan bakarrik izan daiteke doakoa.

Bestalde, ondareko ondasunen lagapena doakoa izan daiteke baldin eta irabazi-asmorik gabeko entitate pribatuei lagatzen bazaizkie ondasunak, onura publiko edo gizarte-intereseko xedeetarako eta gehienez 20 urterako.

- Estatuko gainerako lurraldeetan, jabari publikoko ondasunen erabileraren araubidea eguneratuz joan da denbora igaro ahala, eta Nafarroan ezarritakoa baino malguagoa da. Emakidak zuzenean egitea onartzen du, eta doako lagapenak egiteko aukera ematen du.

- Ikastetxe itunduei egindako lagapen gehienetan jabari publikoko lurrak laga dira, ikastetxe lagapen-hartzaileek administrazio-emakida eskatu dute eta behar ziren izapideak bete dira.

Egindako lagapenak, oro har, bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin, eta administrazio-emakidak formalizatu dira jabari publikoko lurrak laga izan direnean.

### IV.3. IKASTETXE PRIBATUEN ZERGA SALBUESPENAK EDO KENKARIAK

Ikastetxe horiek izan ditzaketen zerga nagusiak sozietateen gaineko zerga, balio erantsiaren gaineko zerga, ondasun higiezinaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoaren gaineko zerga dira.

#### *Nafarroako Zerga Ogasunaren tributatuak*

- *Sozietateen gaineko zerga.* Hezkuntza jardueraren bidez lortzen diren errentak zerga horren kargapean daude, eta ez dago berariaz aurreikusirik horrelako ikastetxeentzako onura fiskalik zerga horri dagokionez. Ikastetxe bakoitzak bere forma juridikoaren arabera karga-tasarekin tributatu du.

Hona hemen ikastetxe pribatuen karga-tasak, ikastetxeek hartutako forma juridikoaren arabera:

Forma juridikoa	Ikastetxe kop.	Karga-tasa
10/1996 Foru Legea aplikatzen zaien zentroak	48	Tributazioetik salbuetsiak; % 10 beren xedeaz bestelako jardueretarako
Kooperatiba babestuak	15	% 17
Sozietate anonimoak/erantzukizun mugatua	3	Tasa orokorrak

Ikus daitekeenez, ikastetxe gehienei Fundazioen Tributu Araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legea aplikatzen zaie, fundazio edo erlijioso-kongregazio gisa edo onura publikoa deklaraturako elkarte gisa eratu direlako; beren xedeaz bestelako ustiapen ekonomikoren baten bidez etekinak lortzen badituzte, horiek ehuneko 10eko tasarekin zergapetuko dira<sup>6</sup>.

Bestalde, babestutako kooperatiba gisa eratu diren ikastetxeek ehuneko 17ko karga-tasa dute, sozietateen gaineko zergari buruzko araudiarekin bat etorritik.

Sozietate anonimoak edo erantzukizun mugatuko sozietateak diren hiru ikastetxeek karga-tasa orokorrak dituzte.

- *Balio erantsiaren gaineko zerga.* Zerga hori arautzen duen 10/1992 Foru Legearen arabera, hezkuntza jarduera BEZetik salbuetsita dago irakaskuntza emateko baimendutako ikastetxe guztietan. Beraz, horrek aztergai ditugun 66 ikastetxeei eraginien lieke.

Azpimarratu nahi dugu 19 ikastetxetan merkataritza-sozietateak eratu direla, ikastetxeen paraleloak, eta haien xede soziala hezkuntzaz kanpoko dela; sozietate horiek irakaskuntza emateko erabiltzen diren ondasunen titularrak dira, eta hezkuntza ematen duten ikastetxe pribatuei alokatzen dizkiete. Horrek ahalbidetzen die BEZaren kargapeko jarduera bat egitea, eta, hain zuzen ere, egiazatu dugu 2002-2017 bitartean 19 sozietate horiek BEZaren 2,66 milioi euroko itzulketarako eskubideak sortu dituztela, guztira.

- *Ondare-eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga.* Kasu horretan, aipaturako 48 ikastetxeak, Fundazioen Araubidea erregulatzen duen 10/1996 Foru Legeari heldu diotenak, zerga horretatik salbuetsita daude, baldin eta eskuraketak iraunkortasunez atxikitzen bazaizkie beren xede sozial edo helburu berariazkoa osatzen duten jarduerari.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren onura fiskalen aurrekontuak ez du zehazten aztertutako zerga horietako bakoitzean zenbat legokiekeen ikastetxe horiei; beraz, behar den informazioa falta zaigu ikastetxe guztiek ohiko tasekin tributatu izan balute Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak jasoko zukeen zenbatekoa kalkulatzeko.

<sup>6</sup> Kontuan izan behar da, gainera, ikastetxeen titular diren erlijioso-kongregazioek, probintzia-egoitza edo barrutia non duten, han tributatu dutela, eta litekeena da egoitza hori Nafarroako ikastetxearena bera ez izatea. Hala, beren xede sozialaz bestelako ustiapen ekonomiko baten bidez lortutako etekinak beste autonomia erkidego batzuetan zergapetuko liriateke.

*Toki zergak*

• *Lurraren kontribuzioa.* Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeak berariaz ezartzen du irakaskuntza ez-unibertsitarioa ematen duten ikastetxe itunduentzako eraikinak eta lurra zerga hori ordaindu beharretik salbuetsita egonen direla.

Arau horrek ez du salbuespena emateko baldintzarik ez prozedurarik aurreikusten, eta ez du zehazten eraikin osoa salbuetsiko den edo irakaskuntza itunduari atxikitako zatia bakarrik, ezta nor den zergaren subjektu pasiboa ere. Estatuko araudian, salbuespen horren norainokoa berariaz arautzen da 2187/1995 Errege Dekretuan. Bertan honako hau ezartzen da: salbuespena lortzeko, ondasunen titularrak ikastetxearen titularra bera izan behar du; espresuki eskatu behar da salbuespena, eta tributaziotik salbuetsitako azalera irakaskuntza itundurako erabiltzen direnak soilik izanen dira.

Estatuan, beraz, bestelako arauak dituzte eta ondorioak bestelakoak dira. Nafarroan, ikastetxeek ez dute zerga hori ordaintzen, aipatutako salbuespena ikastetxeen azalera osoari aplikatu behar zaiela ulertzen delako. Gainera, ondasunen titularra edozein dela ere, berdin aplikatzen da salbuespena. Ildo horretan, egiaztatu dugu 32 ikastetxetan ondasunen titularra ez dela irakaskuntza ematen duena, eta, normalean, alokatu egiten dizkiola ondasunak. Era berean, egiaztatu dugu metro karratuen ehuneko 27, zeinen katastro balioak guztizkoaren ehuneko 62 egiten baitu, irakaskuntzarako erabiltzen diren azalerei dagozkiela; gainerakoa itundu gabeko hezkuntzarako, kirolerako, etxebizitzarako, bulegoetarako, aisiarako, biltegiarako eta abarreko xedeetarako erabiltzen da.

Lurraren kontribuzioaren salbuespen horren ondorioz udalek jasotzen ez dituzten diru-sarreraren zenbatespena egin dugu guztizko katastro balioen bidez<sup>7</sup> eta udalek aplikatzen dituzten tasen bidez, eta datu hauek atera ditugu:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira, 2012-2016
Lurraren kontribuzioko onura fiskalen zenbatespena	959.712	988.917	996.818	1.005.550	1.006.062	4.957.061

• *Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.* Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak ezartzen duenez, zerga ordaindu beharretik salbuetsita daude gehienbat funts publikoen bidez finantzatzen diren irakaskuntza establezimenduak, maila guztietakoak, edo ongintzakoak nahiz onura publikoak direla deklaraturako fundazioak.

Arauek ez du ezartzen salbuespenaren baldintzak justifikatzeko prozedurarik.

Toki enteek aplikatzen dituzten tasak kontuan hartuz, ikastetxe horiek zenbat ordaindu behar zuketan kalkulatu dugu, eta emaitza honako hau da:

	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira, 2012-2016
JEZeko onura fiskalen zenbatespena	26.011	26.011	26.011	26.011	26.011	130.055

Kontuan hartu dugun zenbatekoa urte guztietan berdina da, egiaztatu baitugu, arau orokor gisa, ordaindu behar diren kuotak denboran zehar egonkorak direla.

<sup>7</sup> Ez dira kontuan hartu erlijiorako erabiltzen diren azalaren eta erlijioso-kongregazioen komentuen katastro balioak, horiek berariaz salbuetsita daudelako.

#### IV.4. HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN IKUSKAPEN ETA KONTROL JARDUKETAK

Irakaskuntza pribatu ez-unibertsitarioaren itunen eta diru-laguntzen kudeaketari buruz egiten diren jarduketa nagusiak hauek dira:

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik jasotako funts publikoak justifikatzeko, ikastetxe itunduek, ikasturte bakoitzaren amaieran, Eskola Kontseiluak onetsitako ziurtagiri bat aurkezten dute, izandako gastuei eta lortutako diru-sarrerei buruzkoa. Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atalak jasotzen du ziurtagiri hori. Ez da eskatzen ikastetxeek aurkeztutako zenbakien euskarri den dokumenturik, ez eta haien laginik aztertzen ere.

- Zuzendaritzan eta eginkizun pedagogikoetan laguntzeko beste kargu batzuetako osagarriaren kobrantzari buruz ikastetxeek bidaltzen dituzten ziurtagiriak ere goian aipatutako atalak jasotzen ditu; gainera, 2017-2018 ikasturtetik, kargu horietan ari diren pertsonak jasotako diru kopuruari berri bidaltzen dute ikastetxeek. Beste alde batetik, logopeda eta zaintzaileen kontratuak jasotzen ditu, eta pertsona horiek dagozkien ordainsariak jaso dituztela dioten ziurtagiriak era bai, nahiz eta diru kopuru horiek ez diren kuantifikatzen. Langile horien nominarik ez da eskatzen. Beraz, ez da egiaztatzen ikastetxeak langileari hitzarmen aplikagarriaren arabera dagokion diru kopurua ordaintzen ote dion.

- Ikastetxe pribatuak langileak kontratatuzko prozedurak ez dira gainbegiratu; prozesu horri buruz, ikastetxeek ziurtagiri bat bidaltzen dute, araudian eskatzen den bezala publizitatearen, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak bete dituztela dioena.

Horri dagokionez, 2017aren amaieran sindikatuek, patronalek eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak sinatutako akordioak, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak kontrataziorako irizpideetan egindako aldaketarekin eta homogeneizazioarekin batera, araudian ezarritakoa garatzen du eta publizitatearen, merezimenduaren eta gaitasunaren irizpideen aplikazioa errazten du.

- Ikastetxeek kontratatutako langileen ordezkapenak honela kontrolatzen dira: ikastetxeek Itunpeko eta Diruz Lagundutako Ikastetxeen Nomina Bulegoari bidaltzen dizkiote kontratua, behar den titulazioa, Gizarte Segurantzako alta eta ordezkaturako pertsonaren dokumentazioa.

- Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Nafarroako ikastetxe guztientzat urtero onesten dituen planek zuzenean eragiten diete ikastetxe itunduei eta diruz lagunduei. Plan horietako jarduerak zerikusia dute alderdi hauekin, funtsean: taldeen eta irakasleen ordutegiak eta titulazioak berrikustea<sup>8</sup> ikasturtearen hasieran; eskola egutegia eta ordutegia onartzea; Haur Hezkuntzako eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen urteko plangintza gainbegiratzea (bizikidetzeta eta hobekuntza planak barne); eskolako bizikidetzarekin lotuta dauden erreklamazio eta salaketen gaineko txostenak egitea; ikasleen eskolatzeta eta onarpena koordinatu eta gainbegiratzea, ikastetxeei aholkuak, orientazioa eta informazioa ematea araudiaz, antolaketaz eta curriculumez, eta abar. Gainera, txostenak egiten dituzte hezkuntza itunak aldatzen direnean, eta ikastetxe itunduetako jarduerak eta zerbitzuak baimentzeaz eta erregistratzeaz arduratzen dira.

**Azken batean**, ikastetxeek araudian eskatzen diren dokumentuak aurkezten badituzte ere, uste dugu kontrola ez dela aski, ez delako unitate jakin baten zeregina ebaluatzen ari garen ikastetxeen itunen eta ematen zaizkien diru-laguntzen baldintza guztiak bete daitezela arduratzea eta honako alderdi hauek, besteak beste, kontrolatzea: irakasleak kontratatuzko prozedura, itun eta diru-laguntzen bidez finantzaturako gastuen euskarria eta justifikazioa, ikastetxeek betetako ereduaren arabera irakasle kontratatuek egindako jardueren betetzea, eta abar.

<sup>8</sup> Normalean Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atalak egiaztatzen ditu titulazioak.

#### IV.5. IKASTETXE LAGIN BATEN AZTERKETA

Funts publikoen bidez finantzatzen diren 66 ikastetxe pribatuetatik, bederatzik osatutako lagina aztertu dugu. Horietatik zortzi itunduak dira (Miravalles-El Redín ikastetxea, San Fermin ikastola, San Cernin ikastetxea, Santa María de la Real ikastetxea, La Compasión-Escolapios ikastetxea, Compañía de María ikastetxea, Lizarra ikastola eta Garcés de los Fayos ikastola), eta bat diruz lagundua eta itundua da (Altsasuko Jesusen Bihotza ikastetxea).

Alderdi hauek fiskalizatu ditugu: ikasleak matrikulatzeko eta onartzeko prozedura, ikastetxe horiek jasotako funtsen euskarria eta justifikazioa, langileak kontratatze eta ordezkatzeko prozedura, gelako ikasle ratioak, BHP eta HPB ikasleak, irakasleen ordutegiak, irakasle ez diren langileen eginkizunak eta ordutegiak, eta ikastetxe horietan egindako ikuskapen jarduketak.

Egindako azterketaren arabera, ondoriozta dezakegu, oro har, aztertutako prozedurak, ratioak eta langileen eginkizunak eta ordutegiak bat datozela araudian ezarritakoarekin; gainera, itunen eta diru-laguntzen ondoriozko gastuek kasu guztietan dituzte euskarria eta justifikazioa, eta behar bezala kontabilizatu dira. Dena den, honako alderdi hauek aipatu behar ditugu:

- Langileak kontratatze prozeduretan, publizitatearen baldintza San Fermin ikastolan bakarrik betetzen da modu egokian. Gainerakoetan, oro har, ikastetxeko iragarki oholean edo erakundearen web-orrialdean nahiz Facebookeko orrialdean baizik ez da iragartzen prozedura.

Beste alde batetik, ezin izan dugu egiaztatu merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak aplikatu ote diren Tuterako Compañía María ikastetxean eta San Cernin ikastetxean berrikusitako kontratazioetan.

- Gelako ikasle ratioek, zenbait kasutan, gehienekoak gainditzen dituzte; beste batzuetan teorikoki ezarritako gutxienekoak baino txikiagoak dira, baina kasu guztietan egoera horiek baimenduta daude.

Gehieneko ratioen kasuan, 2018-2019 ikasturteetik aurrera ez da onartuko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako zikloko matrikula epean 25 pertsonatik gorako ratioirik.

- Moduluko "Bestelako gastuak" izeneko atalak ez du xehetasunez azaltzen zer kontzeptu sar daitezkeen. Horren ondorioz, hainbat motatako gastuak sartzen dira; hala, adibidez, bi ikastetxek (San Fermin ikastola eta Miravalles-El Redín ikastetxea) gastutzat sartu dute erabiltzen dituzten ondasun higiezinen alokairua, eta ondasunen jabe diren ikastetxeek, aldiz, ez dute sartu amortizazioaren ondoriozko gastua, ez dutelako zenbateko horren euskarri den egiaztagiririk.

Egiaztatu dugunez, La Compasión ikastetxea, Santa María la Real ikastetxea eta Compañía de María ikastetxea ere ez dira lurraren kontribuziorik ordainarazten ez den ondasunen titularrak, baina gastuen ziurtagirian ez da kontzeptu hori sartu.

- 2017-2018 ikasturtera arte ikastetxe pribatuetako ordezkapenak ez ziren hamargarren egunera arte finantzatzen eta ikastetxeek egin behar zieten aurre kostu horri, beren langileekin edo kontratazio gehiagorekin.

Ikasturte honetatik aurrera, 2017ko irailean hartutako erabakiaren ondoren, ordezkapenak lehen egunetik finantzatzen dira honako kasu hauetan: kurtso bakoitzeko lerro bakarra dagoenean, amatasuneko, aitatasuneko edo adopzioko baimenak hartzen direnean, Batxilergoko bigarren kurtsoko irakasleen kasuan, edo irakasleak berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei eskola ematen dienean.

- Hezkuntza Departamentuak egiten du ikastetxe itunduetako langileen nomina, eta berak ordaintzen die; hori horrela, ez zaigu zentzuzkoa iruditzen ikastetxeek prestatzea kotizazio-dokumentuak.

- Irakasleen ordutegiak EDUCA aplikazioan ageri direnak dira, eta egiaztatu dugu bat datozela ikastetxe bakoitzaren itunean ezarritakoarekin eta langile horien nominen ordainketa eskuordetuekin.

- Aztertutako laginean erlijioso bakar batek jaso du nominaren ordainketa eskuordetua irakaslanak egiteagatik.



- Berriazko hezkuntza-premien diagnostikoa duten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak gehienetan ez dira aski izaten, eta finantzatutako ikasleez gain, ikasle gehiagori ere erantzun behar izaten diete.

Horri dagokionez, egiaztatu dugu 66 ikastetxe pribatuetan berriazko hezkuntza-premietarako gastua azken bost urteetan ehuneko 14 jaitsi dela, behean azaltzen den moduan (euroak, milioi-kotan):

	Ikasturtea				
	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017
Pedagogia terapeutikoaren ordainketa eskuordetua	3,25	3,17	3,11	3,01	2,81
Logopedak eta zaintzaileak	1,00	1,06	1,08	1,11	1,16
Orokorra, guztira	4,25	4,23	4,19	4,12	3,97
BHP + HPB ikasleak, guztira	2.615	3.069	3.328	3.588	3.795

Gastua murriztu bada ere, berriazko hezkuntza-premien diagnostikoa duten ikasleen kopurua ehuneko 45 hazi da.

#### IV.6. IKASTETXE ITUNDU BATEN GASTUA ETA IKASTETXE PUBLIKO BATENA: KONPARAZIO-AZTERKETA

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta udalek 2016-2017 ikasturtean ikastetxe publiko batean egindako gastua eta ikastetxe itundu batean egindakoa konparatzeko, Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atalaren laguntzaz, bi ikastetxe hautatu ditugu, antzeko ezaugarriak dituztenak (ikasle kopuru osoa, taldeak, ematen diren irakaskuntza zikloak, kokalekua eta abar), ahalik eta homogeneoenak.

Hautatutakoak San Juan de la Cadena ikastetxe publikoa eta Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús ikastetxea dira, biak Iruñean kokatuak; gainera, biek ematen dituzte Haur Hezkuntzako bigarren zikloa (hiru urtetik seira bitartekoa) eta Lehen Hezkuntza.

Ikasturte bakoitzean 2016-2017 ikasturtean honako talde kopuru hauek izan zituzten hezkuntzako etapa bakoitzean:

	San Juan de la Cadena ikastetxe publikoa		Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús ikastetxe itundua	
	Talde kop.	Ikasleak, guztira	Talde kop.	Ikasleak, guztira
Haur Hezkuntzako 1.a	2	49	2	38
Haur Hezkuntzako 2.a	2	49	2	34
Haur Hezkuntzako 3.a	2	49	2	49
Lehen Hezkuntzako 1.a	2	50	1	28
Lehen Hezkuntzako 2.a	2	49	2	49
Lehen Hezkuntzako 3.a	2	49	2	54
Lehen Hezkuntzako 4.a	2	48	2	54
Lehen Hezkuntzako 5.a	2	44	2	52
Lehen Hezkuntzako 6.a	2	48	2	52
<b>Guztira</b>	<b>18</b>	<b>435</b>	<b>17</b>	<b>410</b>

Taldeek kopuruak ia berdinak dira, eta, nahiz eta ikasle kopurua handiagoa izan ikastetxe publikoan, gastuaren ondorioetarako axola dutenak taldeak dira, eta horregatik bi ikastetxeak konparagarriak dira.

Konklusioak azaldu baino lehen, ikastetxe publikoen eta itunduen arteko edozein konparazio baldintzatuko luketen kontu batzuk azpimarratu nahi ditugu:

- Irakasleek astean egin behar dituzten irakastorduei dagokienez, ikastetxe publikoetan 20 ordu dira eta itunduetan 23 ordu; gainera, ikastetxe publikoetan jolastorduko zaintza-orduak ira-

kastordutzat zenbatzen dira, eta itunduetan ez. Horren arabera, ikastetxe publikoek eskola kopuru bera emateko langile gehiago behar dituzte ikastetxe itunduek baino.

- Ordainsariei dagokienez, ikastetxe publikoetako irakasleenak handiagoak dira, bai oinarrizkoak bai pertsonalak.

Bestalde, ikastetxe publikoetan Lehen Hezkuntzako orientazio lanetan aritzen diren langileek A mailako ordainsariak jasotzen dituzte, eta itunduetan B mailakoak, nahiz eta bi kasuetan titulazio bera eskatzen zaien.

Enpresaren karguko Gizarte Segurantzaren kostua funtzionarioentzat ehuneko 25,2 ingurukoa da, sarrera-dataren arabera, eta langile kontratatuentzat handiagoa, ehuneko 32,1 gutxi gorabehera; horren ondorioz, ikastetxe publiko batean zenbat funtzionario eta zenbat kontratudun dauden, gastuak handiagoak edo txikiagoak izanen dira, funtzionarioik ez dagoen ikastetxe pribatu baten gastuen aldean.

Gainera, irakasleen kidegoa Estatukoa da eta klase pasiboen mutualitaterako ekarpena Estatuak berak egiten du, ez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak. Diru kopuru hori urtero doitzen da Hitzarmen Ekonomikoko ekarpenean; zenbait irakasle mota daude sarrera-dataren arabera, eta ondorioz ordainsariak ez dira beti berdinak gaixotasun edo amatasunagatiko bajak, aitatasuneko baimenak eta abarrekoak hartzen direnean. Nomina osatzeko dirua jartzen duen erakundea ere ez da beti bera: kasu batzuetan klase pasiboak dira, besteetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa.

Aurreko guztiak berekin dakar, oro har, ikastetxe publikoetako langile gastua beti handiagoa izatea ikastetxe itunduetakoa baino. Alde horiek handiagoak izan daitezke funtzionarioen ehunekoaren eta funtzio publikorako sarrera-dataren arabera, ikastetxean aldi baterako kontratatuta dauden langileen ehunekoaren arabera, eta langileen bajen arabera.

Aipatutako alderdiak kontuan izanik, aztertutako ikastetxeetan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Iruñeko Udalak 2016-2017 ikasturtean egindako gastu publikoaren konparazioa aurkezten dugu jarraian:

Kontzeptua	San Juan de la Cadena ikastetxe publikoa	Esclavas del Sagrado Corazón de Jesús ikastetxe itundua
<b>Irakasleak</b>		
Lanpostuko ordainsariak	1.103.904	759.788
Ordainsari pertsonalak	153.501	54.892
Ordainsariak guztira + gizarte segurantzza	1.659.840	1.068.486
Ordezkapenak + gizarte segurantzza	135.401	11.721
Beste kargu batzuetako osag.	0 <sup>(1)</sup>	13.156
Ikastetxe itunduko logopeda	0 <sup>(2)</sup>	12.917
<b>Irakasleen gastua, guztira</b>	<b>1.795.241</b>	<b>1.106.280</b>
Administrarien gastua	28.625	
Funtzionamenduko langileen gastua	149.431	167.454 <sup>b</sup>
Funtzionamendu gastuak	151.295	
<b>Guztizko gastua</b>	<b>2.124.592</b>	<b>1.273.734</b>
Guztizko gastua taldeko	118.033	74.926
Irakasleen gastua taldeko	99.736	65.075
Gainerako langileen gastua taldeko	9.892	4.925
Funtzionamendu gastua taldeko	8.405	4.925

<sup>(1)</sup> Zuzendaritzako karguetako osagarria ordainsari pertsonaletan sartuta dago, eta logopedaren gastua, berriz, guztizko ordainsarrietan; ikastetxe itunduaren gastu horiek zehaztu egin dira, "Bestelako gastuak" moduluaren bidez finantzatzen direlako, beste aurrekontu-partida batetik.

<sup>(2)</sup> Zenbateko hori ikastetxe itunduei ordaindutako "Bestelako gastuak" moduluari dagokio, kanpoan utzita zuzendaritzan eta eginkizun pedagogikoetan laguntzeko beste kargu batzuetako osagarria.

Datu horiek aztertuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Guztizko gastua talde bakoitzeko, ikastetxe publikoan 118.033 eurokoa da, ikastetxe itunduan baino ehuneko 37 handiagoa. Kontuan izan behar da datu horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari bi ikastetxe horiek eragiten dioten gastuari dagozkiola, ez zerbitzuaren prestazioaren benetako gastuari, ikastetxe itunduaren kasuan.

- Irakasleen gastua talde bakoitzeko, horixe da guztizko gastuaren osagai nagusia, eta ikastetxe publikoan ia 100.000 eurokoa da. Ikastetxe itunduan, berriz, 65.075 eurokoa. Gainerako langileen gastua talde bakoitzeko, ikastetxe publikoaren kasuan bikoitza da, eta funtzionamendu gastuak ere ehuneko 44 handiagoak dira; kalkulu horiek egiteko, seinalatutako zenbatekoaren erdia langileen gastuetarako dela eta beste erdia funtzionamendu gastuetarako dela jo dugu.

- Ikastetxe publikoan irakasle baliokideak 38 dira, eta ikastetxe itunduan 28 dira; horrek esan nahi du irakasle bakoitzeko guztizko gastua ikastetxe publikoan 47.243 eurokoa dela eta ikastetxe itunduan 39.510 eurokoa. Ehuneko 20ko aldea dago.

- Ikastetxe publikoko ordezkapenen gastua nabarmentzen da: 135.401 eurokoa da, eta ikastetxe itunduan, berriz, 11.721 eurokoa (ehuneko 91 gutxiago); era berean, lanpostuari dagozkion ordainsariei gehitutako ordainsari pertsonalak ikastetxe publikoan ehuneko 18 dira eta ikastetxe itunduan ehuneko zazpi.

- Funtzionamendu gastua eta hari lotutako langileria gastua, ikastetxe publikoaren kasuan, Iruñeko Udalak finantzatzen du. Ez dago jasorik hautatutako ikastetxe itunduak toki ente horretatik inolako diru-laguntzarik jaso duenik.

Laburbilduz, ikastetxeetako bakoitzean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Iruñeko Udalak egindako gastu publikoa kalkulatuaz lortutako datuak ekarri ditugu, eta horiek erakusten dute ikastetxe publikoa garestiagoa dela ikastetxe itundua baino; hala ere, parametro askok baldintzatzen dute konparazioa, eta ikastetxeen jardueraren ekonomiari, efizientziari, eragin-kortasunari edo kalitateari buruz iritzia azaltzea eragozten digute.

#### IV.7. AMAIERAKO KONKLUSIOA ETA GOMENDIOAK

**Azken batez**, irakaskuntza ez-unibertsitarioa funtsezko zutabe bat da, Nafarroako herritarren etorkizuneko hezkuntza markatuko duena; horretarako, badira Nafarroan ikastetxe publikoak eta ikastetxe pribatuak (gehienak itunduak). Ganbera honek uste du hezkuntza itunak irakaskuntza ez-unibertsitarioaren funtsezko osagaiak direla, Nafarroan hezkuntza zerbitzuaren prestazioa bermatzea ahalbidetzen dutelako. Kontuan izan behar da ikasleen ehuneko 40 horrelako ikastetxeetan dabilzala.

Irakaskuntza ez-unibertsitarioa ematen duten ikastetxe pribatu horiek 2012-2016 bitartean Nafarroako sektore publikoari eragin dioten gastua 649,77 milioi eurokoa izan da; zenbateko hori adierazgarria da eta behar bezala kontrolatu beharrekoa, hezkuntza herritarren etorkizunerako zein garrantzitsua den kontuan hartuta.

Horri dagokionez, egiaztatu dugu Hezkuntza Departamentuak gaur egun egiten duen kontrolak akatsak dituela eta hobetu behar litzatekeela. Nolanahi ere, aldaketak hasi dira bide horretan. Horregatik, honako hau gomendatzen dugu:

- *Hezkuntza Departamentuan berariazko unitate bat sortzea, hezkuntza itunak guztiz betetzen diren kontrola dezan.*
- *Ikastetxe itunduen lagin batean aurkeztutako ziurtagirien euskarriak eta justifikazioak urtero berrikustea.*
- *Ikastetxe itunduek langileak kontratatzeko erabiltzen dituzten prozedurak kontrolatzea, eta bermatzea bete-betean aplikatuko direla publizitatearen, merezimenduaren eta gaitasunaren printzipioak.*
- *Ikastetxeetako irakasleen laginak hartu, eta EDUCA plataformaren arabera esleitu zaizkien ordutegiak eta eginkizunak betetzen direla egiaztatzea.*
- *Jabari publikoko lurren lagapenak administrazio-emakiden espediente egokien bitartez formalizatzea.*
- *Zehatzago adieraztea zer gastu finantza daitezkeen itunen moduluko "Bestelako gastuak" atalean.*
- *Berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak gehitzea komeni den aztertzea.*
- *Ikastetxe itunduetako langileen kotizazio-dokumentuak Hezkuntza Departamentuak egitea, nominaren ordainketa eskuordetua dagoeneko berak egiten baitu.*
- *Lurraren kontribuzioan aplikatutako kenkaria berariaz arautzeko aukera aztertzea, aipatutako parametroak eransteke, Estatuan ezartzen diren horiek.*
- *Toki entitateen ondasunen lagapenari buruzko araudia eguneratu beharra baloratzea, Estatuan dagoen araudia kontuan hartuta.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Karen Moreno Orduña andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 29an  
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

## 1. ERANSKINA. IKASTETXE PRIBATUEN ZERRENDA

## Ikastetxe itunduak

Ikastetxea	Udalerría
Miravalles - El Redín	Miravalles (Zizur Txikia) eta El Redín (Iruña)
Fundacion Educativa Santo Domingo	Anunciata (Tutera), Notre Dame (Burlata), La Presentación eta La Presentación-Notre Dame (Atarrabia)
San Ignacio	Iruña
San Cernin	Iruña
Santa María La Real	Iruña
Irabia-Izaga	Cordovillako ikastetxea eta Burlatako ikastetxea
San Fermín Ikastola	Zizur Txikia
Liceo Monjardín	Iruña
Escuelas Salesianas Don Bosco	Iruña
Luis Amigó	Mutiloabeiti
Hijas de Jesús	Iruña
Sagrado Corazón	Iruña
Ntra. Sra. del Huerto	Iruña
Paz de Ziganda Ikastola	Atarrabia
Consortio Escolar Mater Del Pui	Mater Dei (Aiegi) eta Mater Dei-Puy-Anderaz (Lizarra)
Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba	Andra Mari Ikastola (Etxarri Aranatz eta Arbizu), Iñigo Aritza Ikastola (Altsasu), Sakana Ikastola (Altsasu eta Etxarri Aranatz)
La Compasión Escolapios	Iruña
San Francisco Javier	Tutera
Calasanz	Iruña
Santo Tomás	Iruña
Santa Teresa de Jesús	Iruña
Larraona Kardinala	Iruña
Vedruna	Iruña
Compañía de María	Tutera
Francisco de Jaso Ikastola	Iruña
Santa Luisa de Marillac	Barañain
Ins.Tec.Com. Cuatrovientos	Iruña
Lizarra Ikastola	Lizarra
Escuelas Pías	Tafalla
El Molino	Iruña
Garcés de los Fayos Ikastola	Tafalla
Santa Ana	Lizarra
Isterria Hezkuntza Bereziko Ikastetxea	Ibero
María Inmaculada	Iruña
Esclavas del Sagrado Corazón	Iruña
Sta. Catalina - Stmo. Sacramento	Iruña
Santa Catalina de Labouree	Iruña
Zangozako Ikastola	Zangoza
Argia Ikastola	Fontellas
Amor de Dios - Regina Pacis	Burlata
Carlos III Ikastetxe Teknikoa	Iruña
Regina Pacis	Burlata
Labiaga Ikastola	Bera

Ikastetxea	Udalerría
Amor de Dios	Burlata
Santísimo Sacramento	Iruña
La Milagrosa	Lodosa
Nafarroako Eskola Politeknikoa	Iruña
Nuestra Señora del Puy	Lizarra
Jesusen Bihotza	Bera
Erentzun Ikastola	Viana
Tantirumairu Ikastola	Lesaka
Arangoiti Ikastola	Irunberri
Nuestra Señora de Los Dolores	Mendabia
Ibaialde Ikastola	Lodosa
Ntra. Sra. de las Escuelas Pías	Abartzuza

## Diruz lagundutako ikastetxeak

Ikastetxea	Udalerría
Jesusen Bihotza	Altsasu
Ilundain Haritz Berri Fundazioa	Ilundain
Sacerdotes del Corazón de Jesús	Gares
Fundación Taller Escuela	Iruña
Naf. Eraikuntzako Lan Fundazioa	Uharte
Fundación El Castillo	Tutera
Padres Reparadores Ikastetxea	Gares
Lantxotegi Elkarte	Berriozar
Asociación Cauces de La Ribera	Cascante
Elkarte Fundazioa	Iruña
Berriztu Hezkuntza Elkarte	Iruña

## 2. ERANSKINA. IKASTETXE PRIVATUETAKO IKASLE KOPURUAK

Ikastetxea	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017	Guztira, 2012-2017
Miravalles - El Redín	2.131	2.203	2.243	2.255	2.332	11.164
Santa María La Real	1.564	1.600	1.651	1.710	1.774	8.299
San Ignacio	1.771	1.783	1.775	1.756	1.751	8.836
Irabia-Izaga	1.403	1.468	1.554	1.639	1.740	7.804
Fundacion Educativa Santo Domingo	1.620	1.658	1.615	1.658	1.696	8.247
Liceo Monjardín	1.615	1.637	1.644	1.654	1.688	8.238
San Cernin	1.641	1.614	1.616	1.617	1.653	8.141
San Fermin Ikastola	1.507	1.542	1.543	1.570	1.587	7.749
Luis Amigó	1.254	1.311	1.386	1.450	1.514	6.915
Sagrado Corazón	1.332	1.318	1.311	1.348	1.323	6.632
Ntra. Sra. del Huerto	1.107	1.163	1.200	1.204	1.244	5.918
Paz de Ziganda Ikastola	1.067	1.116	1.144	1.178	1.167	5.672
Hijas de Jesús	877	917	970	1.034	1.055	4.853
La Compasión Escolapios	909	934	977	991	1.014	4.825
Consortio Escolar Mater del Pui	847	888	911	942	925	4.513
Calasanz	941	947	952	954	923	4.717
Santa Teresa de Jesús	884	899	893	891	915	4.482
Compañía de María	885	919	917	923	887	4.531
Vedruna	852	867	883	880	875	4.357
San Francisco Javier	900	890	844	824	857	4.315
Claret Larraona	832	834	836	849	855	4.206
Santo Tomás	774	777	784	819	835	3.989
Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba	735	750	754	747	726	3.712
Santa Luisa de Marillac	684	672	696	707	699	3.458
Francisco de Jaso Ikastola	663	628	632	647	655	3.225
Escuelas Pías (Tafalla)	643	653	648	641	614	3.199
Lizarra Ikastola	606	599	596	592	581	2.974
Esclavas del Sagrado Corazón	451	452	441	410	410	2.164
Garcés de los Fayos Ikastola	405	403	385	384	371	1.948
Santa Ana	444	413	397	386	359	1.999
Escuelas Salesianas	261	250	247	272	297	1.327
Santísimo Sacramento	226	219	228	215	230	1.118
Santa Catalina de Labouree	219	235	215	220	228	1.117
Sta. Catalina - Stmo. Sacramento	206	211	229	234	227	1.107
Amor de Dios - Regina Pacis	211	204	216	221	213	1.065
Regina Pacis	227	229	229	220	210	1.115
Amor de Dios	185	187	178	196	204	950
Labiaga Ikastola	178	192	187	193	194	944
Zangozako Ikastola	216	221	202	193	191	1.023
Argia Ikastola	209	202	191	177	183	962
La Milagrosa	134	147	155	164	182	782
Jesusen Bihotza (Altsasu)	174	176	177	172	169	868
Nuestra Señora del Puy	120	120	135	142	138	655
Garesko ikastetxea	146	159	154	146	127	732
Tantirumairu Ikastola	100	97	103	102	104	506
Erentzun Ikastola	107	114	106	95	92	514
Jesusen Bihotza (Bera)	79	73	78	95	91	416
Nuestra Señora de Los Dolores	94	102	99	102	82	479
Arangoiti Ikastola	52	49	63	62	68	294
Ibaialde Ikastola	64	60	51	49	42	266
Ntra. Sra. de las Escuelas Pías	19	15	12	12	17	75
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>34.571</b>	<b>35.117</b>	<b>35.453</b>	<b>35.942</b>	<b>36.314</b>	<b>177.397</b>

## 3. ERANSKINA. GELEN KOPURUA IKASTETXE PRIBATUETAN

	2012-2013	2013-2014	2014-2015	2015-2016	2016-2017	Guztira
Miravalles - El Redín	78	81	82	83	83	407
Fundacion Educativa Santo Domingo	71	71	69	72	70	353
Irabia-Izaga	55	58	61	64	66	304
San Ignacio	60	60	60	60	60	300
San Cernin	60	60	60	60	60	300
Santa María La Real	58	58	59	60	60	295
San Fermin Ikastola	57	58	58	58	59	290
Liceo Monjardín	58	58	58	58	58	290
Luis Amigó	47	49	51	52	53	252
Sagrado Corazón	46	46	46	46	45	229
Ntra. Sra. del Huerto	42	43	44	44	44	217
Paz de Ziganda Ikastola	41	42	43	43	43	212
Hijas de Jesús	36	37	37	39	39	188
La Compasión Escolapios	35	36	37	38	39	185
Consortio Escolar Mater del Pui	36	37	37	37	37	184
Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba	34	34	34	33	34	169
Compañía de María	33	34	35	35	34	171
Calasanz	33	33	33	33	33	165
Claret Larraona	30	30	30	30	30	150
Santa Teresa de Jesús	30	30	30	30	30	150
Santo Tomás	30	30	30	29	30	149
Vedruna	30	30	30	30	30	150
San Francisco Javier	28	28	28	28	28	140
Francisco de Jaso Ikastola	26	26	26	26	26	130
Santa Luisa de Marillac	26	26	26	26	26	130
Escuelas Pías (Tafalla)	26	26	26	26	26	130
Lizarra Ikastola	27	27	26	26	26	132
Garcés de los Fayos Ikastola	23	22	22	20	20	107
Santa Ana	21	20	19	18	17	95
Esclavas del Sagrado Corazón	19	18	18	17	17	89
Jesusen Bihotza (Altsasu)	13	13	13	13	13	65
Argia Ikastola	13	13	13	13	13	65
Zangozako Ikastola	13	13	13	13	13	65
Sta. Catalina - Stmo. Sacramento	10	10	10	10	10	50
Escuelas Salesianas	11	9	9	9	10	48
Santísimo Sacramento	9	9	9	9	9	45
Regina Pacis	9	9	9	9	9	45
Amor de Dios	9	9	9	9	9	45
La Milagrosa	9	9	9	9	9	45
Labiaga Ikastola	9	9	9	9	9	45
Santa Catalina de Labouree	9	9	9	9	9	45
Amor de Dios - Regina Pacis	8	8	8	8	8	40
Erentzun Ikastola	5	6	6	6	6	29
Jesusen Bihotza (Bera)	6	6	6	6	6	30
Tantirumairu Ikastola	5	5	5	5	5	25
Arangoiti Ikastola	4	4	5	5	5	23
Nuestra Señora del Puy	4	4	4	4	4	20
Nuestra Señora de Los Dolores	5	5	5	5	4	24
Garesko ikastetxea	4	4	4	4	4	20
Ibailde Ikastola	3	3	3	3	3	15
Ntra. Sra. de las Escuelas Pías	2	2	2	1	1	8
<b>Orokorra, guztira</b>	<b>1.356</b>	<b>1.367</b>	<b>1.375</b>	<b>1.380</b>	<b>1.382</b>	<b>6.860</b>



## 4. ERANSKINA. GELAKO RATIO TXIKIENAK ETA HANDIENAK, AZTERTUTAKO ALDIAN, HEZKUNTZA ZIKLOAREN ETA IKASTETXE MOTAREN ARABERA

## Ikastetxe publikoak

## 9.000 biztanletik gorako udalerriak

Gutx.	Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren Hezkuntza		Batxilergoa								
	Ikastetxea	Geh.	Ikastetxea	Geh.	Ikastetxea	Geh.	Ikastetxea	Geh.							
2012-2013	Nicasio Landa	26	Arrotxapea	8	Nicasio Landa	24	Eivira España	22	Berriozar	27	Navarro Villoslada	16	Lizarra eta Tutera	31	Iturrama BHI
2013-2014	Nicasio Landa	26	Ilundáin Kardinala	9	Nicasio Landa	25	Eivira España	20	Askatasuna BHI	27	Navarro Villoslada	15	Lizarra	31	Askatasuna BHI
2014-2015	Paderborn Victor Prad.	26	Ilundáin Kardinala	9	Nicasio Landa	25	Ilundáin Kardinala	19	Ibaialde	27	Navarro Villoslada	12	Lizarra	32	Iturrama BHI
2015-2016	Nicasio de Landa	26	Huertas Mayores	8	Nicasio Landa	25	Ilundáin Kardinala	21	Ibaialde	27	Navarro Villoslada	10	Lizarra	33	Iturrama BHI
2016-2017	Nicasio de Landa	25	San Juan Cadenana	11	Nicasio Landa	25	Huertas Mayores	20	Alaiz BHI	28	Navarro Villoslada	9	Lizarra	31	Iturrama BHI

## 9.000 biztanletik beherako udalerriak

Gutx.	Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren Hezkuntza		Batxilergoa								
	Ikastetxea	Geh.	Ikastetxea	Geh.	Ikastetxea	Geh.	Ikastetxea	Geh.							
2012-2013	Pillias	23	Corellako Hiria	7	Arraloz	23	F. Zapatero	6	Arantza	25	Sierra de Leyre	18	Ribera Arga	30	Pablo Sarasate
2013-2014	Virgen Gracia	23	Stos. Justo y Pastor	6	Almandoz	24	Otero Navascués	8	Arneskoa	25	Vianako Pr.	20	Ribera Arga	33	Marqués de Villena
2014-2015	Raimundo Lanas	23	Otero Navascués	6	Beintza-Labaien	23	Otero Navascués	8	Otsagabia	24	Lekaroz BHI	18	Sierra de Leyre	30	Corella
2015-2016	Gartzain	23	Otero Navascués	7	Narbarte Arotzenea	24	Otero Navascués	8	Arneskoa eta Zugarramurdi	25	Alhama	19	Toki-Ona eta Alhama	29	Lekaroz BHI
2016-2017	Lekaroz	23	Virgen Gracia	6	San Nicolás	23	Mardones y Magaña	7	Zugarramurdi	25	Marqués de Villena	16	Amazabal BHI	27	Marqués de Villena

## Ikastetxe itunduak

34

## 9.000 biztanletik gorako udalerriak

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren hezkuntza		Batxilergoa										
Gutx.	Ikastetxea Geh.	Gutx.	Ikastetxea Geh.	Gutx.	Ikastetxea Geh.	Gutx.	Ikastetxea Geh.									
2012-2013	Amor de Dios-Regina Pacis	28	Miravallés	16	Garcós Fayos Ikastola	29	Sagr. Corazón (Iruña)	20	Sta. Catalina. - Sant. Sacr.	32	San Ignacio eta Sta. Ter. Jesús	19	Esc. Sal. Don Bosco	38	S.Francisco Javier	
2013-2014	Amor de Dios-Regina Pacis	28	Ntra. Sra. del Huerto	16	Garcós Fayos Ikastola	28	Santa Teresa de Jesús	20	Sta. Catalina. - Sant. Sacr.	32	Santa Teresa Jesús	18	Santo Tomás	40	El Redín	
2014-2015	Amor de Dios-Regina Pacis	28	Sagr. Corazón (Iruña)	16	Garcós Fayos Ikastola	28	Vedruna	16	Garcós Fayos Ikastola	28	Vedruna	21	Garcós Fayos Ikastola	32	San Ignacio	Calasanz
2015-2016	Notre Dame	28	Sagr. Corazón (Iruña)	17	Garcós Fayos Ikastola	28	Vedruna	17	Garcós Fayos Ikastola	28	Vedruna	23	Sta. Catalina. - Sant. Sacr.	32	Santa Teresa Jesús	Calasanz
2016-2017	Santa Ana	28	Ntra. Sra. del Huerto	16	Garcós Fayos Ikastola	28	Luis Amigó	16	Garcós Fayos Ikastola	28	Luis Amigó	22	Sta. Catalina. - Sant. Sacr.	33	El Redín	Santa Teresa Jesús

## 9.000 biztanletik beherako udalerriak

Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren Hezkuntza		Batxilergoa									
Gutx.	Ikastetxea Geh.	Gutx.	Ikastetxea Geh.	Gutx.	Ikastetxea Geh.	Gutx.	Ikastetxea Geh.								
2012-2013	Jesusen Bihotza (Bera)	25	Mater Dei (Alegi)	10	Ntra.Sra.Escuelas Pias	22	Iñigo Aritza Ikastola	14	Argia Ikastola	28	Padres Reparad. Gares	17	Padres Reparad. Gares	17	Padres Reparad. Gares
2013-2014	Andra Mari Ikast. (Arbizu)	26	Andra Mari Ikastola (Etxarri)	8	Ntra.Sra.Escuelas Pias	23	Iñigo Aritza Ikastola	16	Argia Ikastola	32	Padres Reparad. Gares	16	Padres Reparad. Gares	16	Padres Reparad. Gares
2014-2015	Andra Mari Ikast. (Arbizu)	27	Jesusen Bihotza (Bera)	6	Ntra.Sra.Escuelas Pias	24	Mater Dei (Alegi)	15	Argia Ikastola	28	Padres Reparad. Gares	21	Padres Reparad. Gares	21	Padres Reparad. Gares
2015-2016	Ibaialde Ikastola	29	Iñigo Aritza Ikastola	11	Arangoti Ikastola	25	Mater Dei (Alegi)	14	Argia Ikastola	29	Sakana Ikastola (Etxarri)	22	Padres Reparad. Gares	22	Padres Reparad. Gares
2016-2017	Andra Mari Ikastola	31	Jesusen Bihotza (Bera)	10	Arangoti Ikastola	25	Mater Dei (Alegi)	13	Argia Ikastola	27	Sakana Ikastola (Etxarri)	20	Padres Reparad. Gares	20	Padres Reparad. Gares

## 5. ERANSKINA. IKASLE ATZERRITARREN EHUNeko TXIKIENAK ETA HANDIENAK, AZ-TERTUTAKO ALDIAN

Ikasturtea	Ikastetxe publikoak				Ikastetxe pribatuak			
	Gutx. (%)	Ikastetxea	Geh. (%)	Ikastetxea	Gutx. (%)	Ikastetxea	Geh. (%)	Ikastetxea
2012-2013	0	48 ikastetxe	41	Paderborn Victor Pradera	0	10 ikastetxe	16	Amor de Dios - Regina Pacis
2013-2014	0	48 ikastetxe	42	Paderborn Victor Pradera	0	9 ikastetxe	17	Amor de Dios - Regina Pacis
2014-2015	0	47 ikastetxe	40	Angel Martínez Baigorri	0	14 ikastetxe	17	Amor de Dios - Regina Pacis
2015-2016	0	52 ikastetxe	39	Sanduzelai	0	12 ikastetxe	19	Amor de Dios - Regina Pacis
2016-2017	0	53 ikastetxe	42	Sanduzelai	0	13 ikastetxe	18	Ntra. Sra. de las Escuelas Pías

6. ERANSKINA. MODULUAK ETA IRAKASLE RATIOAK UNITATE ITUNDU BAKOITZEKO, 2016<sup>9</sup>

Hezkuntza maila	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	Moduluaren ehunekoa	Gastu aldakorrak	Moduluaren ehunekoa	Bestelako gastuak	Moduluaren ehunekoa	Langileak osagarriak	Moduluaren ehunekoa	Modulua, gutzira
	Titularra	Agregatua									
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	1.217		43.640	73,52	5.493	9,25	10.228.	17,23			59.361
Lehen Hezkuntza	1.391		49.874	72,73	7.857	11,46	10.842	15,81			68.574
DBHko 1.a eta 2.a	1.652		62.640	75,10	7.915	9,49	12.851	15,41			83.406
DBHko 3.a eta 4.a	1.728		71.194	74,51	9.936	10,40	14.424	15,10			95.555
DBHko 3.a eta 4.a Cur. Anizt. Unit.	1.391		57.314	71,96	7.909	9,93	14.424	18,11			79.646
Curriculum egokituko programa DBH	0.957	0,652	63.984	72,76	9.526	10,83	14.424	16,40			87.934
Batxilergoa	1.652		65.690	72,20	10.864	11,94	14.424	15,85			90.978
GMZetan sartzeko pr. kurtsoa	2.043		84.179	75,98	12.194	11,01	14.424	13,02			110.797
Sarbiderako pr. kurtsoa	1.522		62.687	72,63	9.200	10,66	14.424	16,71			86.311
Hezkuntza maila	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	Moduluaren ehunekoa	Gastu aldakorrak	Moduluaren ehunekoa	Bestelako gastuak	Moduluaren ehunekoa	Langileak osagarriak	Moduluaren ehunekoa	Modulua, gutzira
Titularra	Agregatua										
Oin. Hezk. Berezia psikikoak	1.087		38.964	44,51	4.678	5,34	10.842	12,38			87.549
Oin. Hezk. Berezia autistikak	1.087		38.964	48,26	4.678	5,79	10.842	13,43			80.737
Oin. Hezk. Berezia urritasun anitzeak	1.087		38.964	41,79	4.678	5,02	10.842	11,63			93.245
HLKPB	1.087	1,087	79.932	51,70	11.984	7,75	14.424	9,3			154.599
HIP	0.696	0,391	39.686	48,31	5.371	6,54	10.842	13,20			82.152
Oin. Hezk. Berezia psik. DBHko Un. Espezi-fikoa	1.391		49.874	76,28	4.665	7,14	10.842	16,58			65.381

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakasle titularren ratioak astean 25 eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatuta dira. Bigarren Hezkuntzako irakasle titularren eta irakasle agregatuen ratioak astean 23 orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatuta dira.

<sup>9</sup> Iturria: Urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legea, 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

## Erdi mailako heziketa zikloak

Erdi mailako heziketa zikloak	Kurtsoa	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	Moduluaren ehunekoa	Gastu aldakorak	Moduluaren ehunekoa	Bestelako gastuak	Moduluaren ehunekoa	Modulua, guztira
		Titularra	Agregatua							
Administrazio kudeaketa (HLO)	1.a	0,478	1,087	60.670	68,23	9.256	10,41	18.996	21,36	88.922
	2.a	0,826	0,568	55.436	67,00	8.314	10,05	18.996	22,96	82.746
Administrazio kudeaketa, hiru urtean (HLO)	1.a	0,478	0,435	36.089	66,58	5.448	10,05	12.664	23,36	54.201
	2.a	0,304	0,609	35.479	66,21	5.440	10,15	12.664	23,63	53.583
	3.a	0,565	0,348	36.394	66,77	5.452	10,00	12.664	23,23	54.510
Eritzaintzako zainketa osagarriak	1.a	0,435	1,304	67.072	69,89	10.387	10,82	18.508	19,29	95.967
	2.a	0,261	0,000	10.746	69,03	1.497	9,61	3.325	21,36	15.568
Soldadura eta gal-daragintza (HLO)	1.a	0,348	1,522	71.684	62,83	10.954	9,60	31.452	27,57	114.090
	2.a	0,913	0,609	60.554	59,93	9.033	8,94	31.452	31,13	101.040
Aurreinprimaketa digitala (HLO)	1.a	0,609	1,043	64.404	63,60	9.771	9,65	27.086	26,75	101.261
	2.a	0,652	0,739	54.724	60,73	8.302	9,21	27.086	30,06	90.112
Arte grafikoetako inprimaketa	1.a	0,609	1,043	64.404	62,36	9.851	9,54	29.025	28,10	103.281
	2.a	0,261	0,000	10.746	69,03	1.497	9,61	3.325	21,36	15.568
Inprimaketa grafikoa (HLO)	1.a	0,696	0,957	64.746	62,43	9.939	9,58	29.025	27,99	103.710
	2.a	0,653	0,783	56.416	59,95	8.661	9,20	29.025	30,84	94.101
Arotz-lan eta altz. neur. egin eta instalatzea	1.a	0,826	1,000	71.720	65,32	10.900	9,93	27.178	24,75	109.798
	2.a	0,565	1,000	60.974	62,50	9.403	9,64	27.178	27,86	97.555
Farmazia eta parafarmazia (HLO)	1.a	0,652	0,913	61.279	69,74	9.264	10,54	17.329	19,72	87.873
	2.a	0,652	0,717	53.905	67,89	8.169	10,29	17.329	21,82	79.403
Instalazio elektriko eta automatikoak (HLO)	1.a	0,696	1,000	66.347	63,98	9.997	9,64	27.363	26,38	103.707
	2.a	0,652	0,870	59.640	62,11	9.021	9,39	27.363	28,50	96.024
Mekanizazioa (HLO)	1.a	0,522	1,391	73.932	65,54	11.381	10,09	27.498	24,38	112.811
	2.a	0,696	0,826	59.792	61,99	9.162	9,50	27.498	28,51	96.452
Merkataritza	1.a	1,043	0,696	69.205	70,25	10.415	10,57	18.895	19,18	98.515
	2.a	0,261	0,000	10.746	69,03	1.497	9,61	3.325	21,36	15.568
Merkataritzako jarduerak	1.a	0,870	0,870	68.635	69,99	10.536	10,74	18.895	19,27	98.067
	2.a	1,044	0,479	61.065	68,36	9.374	10,49	18.895	21,15	89.335
Mendekotasuna duten pertsonentzako arreta (HLO)	1.a	0,739	0,826	61.584	68,86	9.343	10,45	18.508	20,69	89.435
	2.a	0,739	0,696	56.668	67,64	8.597	10,26	18.508	22,09	83.772
Eraikuntzako makineriaren erabilera eta mantentze-lanak	1.a	0,826	1,000	71.721	62,79	10.733	9,40	31.768	27,81	114.222
	2.a	0,739	0,783	59.945	59,51	9.025	8,96	31.768	31,54	100.738
Hondeaketak eta zundaketak	1.a	1,000	0,827	72.370	62,80	11.110	9,64	31.768	27,57	115.247
	2.a	0,740	0,783	60.000	59,42	9.211	9,12	31.768	31,46	100.979
Sist. mikroinformatikoak eta sareak	1.a	0,740	1,305	79.676	71,78	12.231	11,02	19.089	17,20	110.997
	2.a	1,175	0,261	58.245	67,51	8.941	10,36	19.089	22,13	86.276

## Goi mailako heziketa zikloak

Goi mailako heziketa zikloak	Kurtsoa	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	Moduluaren ehuneko	Gastu aldakorrak	Moduluaren ehuneko	Bestelako gastuak	Moduluaren ehuneko	Modulua, guztira
		Titularra	Agregatua							
Nazioarteko merkataritza	1.a	1,174	0,348	61.468	69,81	9.184	10,43	17.399	19,76	88.051
	2.a	1,217	0,217	58.343	69,10	8.691	10,29	17.399	20,61	84.433
Mantentze-lan elektronikoa	1.a	1,435	0,261	68.937	66,54	10.459	10,10	24.204	23,36	103.600
	2.a	0,870	0,717	62.860	65,07	9.537	9,87	24.204	25,06	96.601
Administrazioa eta finantzak	1.a	0,870	0,522	55.486	67,43	8.427	10,24	18.369	22,32	82.282
	2.a	1,348	0,130	60.439	68,87	8.945	10,19	18.369	20,93	87.753
Haur Hezkuntza (HLO)	1.a	0,913	0,739	65.470	70,63	9.763	10,53	17.455	18,83	92.689
	2.a	1,087	0,261	54.609	68,15	8.068	10,07	17.455	21,78	80.131
Merkataritzako kudeaketa eta marketina	1.a	1,043	0,696	69.205	70,73	10.415	10,64	18.231	18,63	97.850
	2.a	0,261	0,000	10.746	69,03	1.497	9,61	3.325	21,36	15.568
Salmenten eta merkataritzako guneen kudeaketa (HLO)	1.a	1,174	0,566	69.700	70,67	10.700	10,85	18.231	18,48	98.630
	2.a	1,131	0,479	64.649	69,66	9.925	10,69	18.231	19,64	92.804
Sareko sistema informatikoen admin. (HLO)	1.a	1,217	0,652	74.730	71,30	10.995	10,49	19.089	18,21	104.815
	2.a	1,304	0,329	66.125	69,69	9.675	10,20	19.089	20,12	94.889
Automatizazioa eta robotika industriala	1.a	0,870	1,043	75.151	69,49	11.401	10,54	21.600	19,97	108.152
	2.a	1,348	0,261	65.355	67,49	9.915	% 10,24	21.560	22,27	96.830
Fabrikazio mekanikoko produktzioaren programazioa (HLO)	1.a	0,696	1,043	67.987	66,13	10.240	9,96	24.574	23,90	102.800
	2.a	1,304	0,304	65.203	65,65	9.539	9,60	24.574	24,74	99.315
Garraioaren kudeaketa	1.a	0,783	0,696	58.458	68,96	8.918	10,52	17.399	20,52	84.776
	2.a	1,435	0,000	59.105	69,37	8.701	10,21	17.399	20,42	85.205
Plataforma anitzeko aplikazioen garapena (HLO)	1.a	1,348	0,435	71.783	71,08	10.699	10,59	18.508	18,33	100.990
	2.a	1,130	0,435	63.001	69,28	9.434	10,37	18.508	20,35	90.943
Anatomia patologica eta zitologia	1.a	0,957	0,739	67.261	68,65	10.164	10,37	20.547	20,97	97.972
	2.a	1,261	0,000	51.940	64,77	7.703	9,61	20.547	25,62	80.191
Arte grafikoen industrietako produktzioa	1.a	0,391	1,348	66.920	64,17	10.385	9,96	26.975	25,87	104.280
	2.a	1,130	0,478	64.593	63,80	9.677	9,56	26.975	26,64	101.245
Fabrikazio mekanikoko diseinua (HLO)	1.a	0,783	0,913	66.652	66,28	10.001	9,94	23.909	23,78	100.561
	2.a	1,522	0,090	66.067	66,37	9.564	9,61	23.909	24,02	99.540
Gizarteratzea	1.a	1,131	0,609	69.549	71,20	10.677	10,93	17.455	17,87	97.681
	2.a	0,870	0,609	58.797	68,95	9.026	10,58	17.455	20,47	85.278

## Oinarrizko Lanbide Heziketa

Oinarrizko Lanbide Heziketa	Kurtsoa	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	Moduluaren ehunekoa	Gastu aldakorrak	Moduluaren ehunekoa	Bestelako gastuak	Moduluaren ehunekoa	Modulua, guztira
		Titularra	Agregatua							
Merkataritza zerbitzuak	1.a	0,522	0,783	51.071	66,25	8.660	11,23	17.354	22,51	77.085
	2.a	0,522	0,783	51.071	66,25	8.660	11,23	17.354	22,51	77.085
Administrazio zerbitzuak	1.a	0,522	0,783	51.071	65,78	8.660	11,15	17.910	23,07	77.641
	2.a	0,522	0,783	51.071	65,78	8.660	11,15	17.910	23,07	77.641
Arte grafikoak	1.a	0,522	0,783	51.071	62,47	8.660	10,59	22.021	26,94	81.752
	2.a	0,522	0,783	51.071	62,47	8.660	10,59	22.021	26,94	81.752
Elektrizitatea eta elektronika	1.a	0,522	0,783	51.071	62,28	8.660	10,56	22.274	27,16	82.005
	2.a	0,522	0,783	51.071	62,28	8.660	10,56	22.274	27,16	82.005
Fabrikazioa eta muntaketa	1.a	0,522	0,783	51.071	62,13	8.660	10,54	22.465	27,33	82.196
	2.a	0,522	0,783	51.071	62,13	8.660	10,54	22.465	27,33	82.196
Eraikinen zaharberritze- eta mantentze-lanak	1.a	0,522	0,783	51.071	60,39	8.660	10,24	24.831	29,36	84.561
	2.a	0,522	0,783	51.071	60,39	8.660	10,24	24.831	29,36	84.561

7. ERANSKINA. 2012-2016 ALDIAN 10.000 EUROTIK 1.000.000 EURORA BITARTEKO GASTUA IZAN DUTEN AURREKONTU-PARTIDAK

Aurrekontu-partida	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016
El Molino ikastetxeko inbertsioetarako transferentzia	500.000	0	0	0	0	500.000
Jantokiak	21.427	13.727	21.482	26.797	147.080	230.512
Enplegu plana. Prestazioak osatzeko laguntzak	0	75.000	75.000	75.000	0	225.000
Enplegu Plana. Kooperatiba eta lan-sozietateentzako diru-laguntzak	129.967	37.308	0	19.961	30.000	217.236
Eraikinak eta eraikuntzak. Osasun mentaleko zentroak	32.130	34.812	38.234	45.464	35.435	186.075
Eraikuntzako segurtasun eta osasun proiektuak (Naf. Eraik. Lan Fundazioa)	139.700	0	0	0	0	139.700
Laneko prebentzioari buruzko jardunaldiak Ilundain Fundazioan	0	0	30.000	39.997	40.000	109.997
Lehentasunezko laneko arriskuei buruzko proiektuak	0	21.784	22.809	40.851	15.676	101.120
Ilundain Fundazioaren lorezaintzako lanak. El Vergel egoitza	25.405	25.832	15.253	16.640	16.630	99.760
Ilundain Fundazioaren lorezaintzako lanak. Haur eskolak	21.447	21.807	16.638	18.175	18.092	96.159
Ingeleseko murgiltze programa (2014)	0	0	92.380	0	0	92.380
Enplegu plana. Ekintza pertsonalizatuak	85.000	0	0	0	0	85.000
Enplegu plana. Entitate laguntzaileen ekintzak	0	0	0	0	74.875	74.875
Garraiorako banakako laguntzak	0	0	0	0	62.903	62.903
Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak, inbertsioagatik, Ilundain Fundazioarentzat	55.852	0	0	0	0	55.852
Salesianos ikastetxearekiko hitzarmena	14.784	0	24.004	10.000	2.030	50.819
Energia berriztagarrietako inbertsioetarako diru-laguntzak (Argia Ikastola)	49.600	0	0	0	0	49.600
Eskola kiroleko programa	17.021	5.409	0	2.641	20.363	45.435
Ilundain Fundazioaren lorezaintza lanak San José ikastetxean	8.425	8.567	8.567	8.567	8.557	42.683
Ilundain Fundazioaren eta Eraik. Lan Fundazioaren lorezaintza lanak Iturrondo ikastetxean	0	932	10.861	10.923	9.743	32.459
Ilundain Fundazioaren lorezaintza lanak Nafarroako Gobernuaren eraikinetan	13.565	11.587	0	0	1.500	26.652
Entitateentzako diru-laguntzak, prebentzio komunitarioko programetarako	0	24.025	0	0	0	24.025
Eskola ibiltarietarako laguntzak	23.871	0	0	0	0	23.871
Enplegu plana. Kontratazioetarako diru-laguntzak	0	6.701	13.243	0	0	19.944
Ilundain Fundazioaren lorezaintza lanak San Francisco Javier zentroan (osasun mentala)	15.505	0	0	0	476	15.981
Ibilbide zientifikoak	14.938	0	0	0	0	14.938
Enplegu Plana. Prog. kontratazioa, kudeaketa, ebaluazioa eta kontrola. Prestakuntza sektoriala	0	0	4.050	2.700	7.130	13.880
Prestakuntza programak ikastetxe itunduetan	0	0	2.850	4.800	5.700	13.350
Hezkuntza berrikuntzako programak ikastetxe itunduetan	0	0	7.100	4.700	0	11.800
Lanbide Heziketarako gobernu-akordioaren garapena	11.400	0	0	0	0	11.400
Aurrezteko eta energia-efizientziarako jarduketak	11.114	0	0	0	0	11.114
Akitania-Nafarroa mugaz harandiko lankidetzak hitzarmena	6.022	4.105	0	0	0	10.127
Enplegu Plana. Ekonomia sozialeko enpresentzako diru-laguntzak	0	0	10.000	0	0	10.000



**8. ERANSKINA. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOTIK IKASTETXE  
PRIBATUEK JASOTAKO FUNTS PUBLIKOAK (2012-2016)**

Ikastetxea	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016
Miravalles - El Redín	5.411.019	5.743.713	5.899.798	6.018.214	6.157.843	29.230.586
Fundación Educat. Sto. Domingo	5.102.899	5.324.433	5.358.026	5.469.520	5.379.169	26.634.048
Ilundain Haritz Berri Fundazioa	5.590.592	5.401.928	5.262.363	4.206.692	4.234.163	24.695.738
San Ignacio	4.734.069	4.894.079	4.828.957	4.941.330	4.916.086	24.314.521
San Cernin	4.645.526	4.766.208	4.791.958	4.805.775	4.807.011	23.816.477
Santa María La Real	4.340.924	4.599.844	4.632.776	4.680.066	4.737.405	22.991.015
San Fermin Ikastola	4.396.440	4.606.211	4.641.304	4.673.922	4.590.664	22.908.541
Escuelas Salesianas Don Bosco	4.461.769	4.473.142	4.555.672	4.520.858	4.546.988	22.558.429
Liceo Monjardín	4.635.400	4.475.285	4.476.512	4.447.621	4.448.920	22.483.738
Irabia-Izaga	3.616.575	3.928.320	4.134.411	4.364.850	4.609.142	20.653.299
Sagrado Corazón	3.664.959	3.689.964	3.769.108	3.801.055	3.802.649	18.727.735
Luis Amigó	3.277.453	3.623.686	3.778.398	3.804.551	3.883.646	18.367.734
Hijas de Jesús	3.372.697	3.528.563	3.610.390	3.708.295	3.813.788	18.033.733
Paz de Ziganda Ikastola	2.949.883	3.154.770	3.315.687	3.372.070	3.383.548	16.175.958
Ntra. Sra. del Huerto	2.973.977	3.187.235	3.261.067	3.327.915	3.423.692	16.173.888
Consortio Escolar Mater del Pui	2.898.403	3.057.848	3.122.682	3.201.963	3.194.819	15.475.715
Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba	2.742.300	2.885.820	3.002.208	3.069.120	2.984.857	14.684.305
San Francisco Javier	2.818.238	2.925.599	2.912.403	2.960.839	2.890.201	14.507.280
La Compasión Escolapios	2.648.581	2.819.779	2.884.112	2.899.035	2.977.947	14.229.453
Calasanx	2.738.520	2.842.989	2.788.628	2.835.509	2.832.375	14.038.021
Santo Tomás	2.587.065	2.602.455	2.568.050	2.630.029	2.621.093	13.008.692
Santa Teresa de Jesús	2.344.193	2.391.451	2.510.691	2.564.311	2.588.226	12.398.872
Cardenal Larraona	2.416.137	2.472.794	2.497.596	2.478.160	2.491.794	12.356.481
Vedruna	2.313.744	2.415.959	2.455.159	2.482.087	2.482.005	12.148.953
Compañía de María	2.275.405	2.393.133	2.449.872	2.476.267	2.434.109	12.028.787
Escuelas Pías	1.998.972	2.120.395	2.100.275	2.088.358	2.019.617	10.327.617
Santa Luisa de Marillac	1.961.792	2.023.923	2.061.479	2.096.514	2.105.16	10.248.868
Ins.Tec. Com. Cuatrovientos	1.977.859	2.090.524	1.988.464	2.100.608	2.078.077	10.235.532
Francisco de Jaso Ikastola	1.958.610	2.063.362	2.010.338	2.044.077	2.103.616	10.180.003
Lizarra Ikastola	1.968.219	1.979.167	1.984.561	2.003.465	2.031.278	9.966.690
El Molino	2.111.548	1.781.889	1.820.379	1.790.958	1.757.109	9.261.883
Santa Ana	1.737.576	1.673.881	1.600.122	1.590.161	1.462.455	8.064.195
Garcés de los Fayos Ikastola	1.472.931	1.571.622	1.550.114	1.581.584	1.581.073	7.757.324
Isterria Hezkuntza Bereziko Ikastetxea	1.461.965	1.478.225	1.504.084	1.482.869	1.430.430	7.357.574
Berriztu Hezkuntza Elkartea	527.828	527.828	1.295.470	2.184.609	2.486.435	7.022.170
Esclavas del Sagrado Corazón	1.338.983	1.326.815	1.303.455	1.299.327	1.275.611	6.544.191
María Inmaculada	1.242.093	1.254.578	1.293.240	1.324.912	1.396.009	6.510.832
Santa Catalina de Labouree	1.141.320	1.125.542	1.085.910	1.057.062	1.084.960	5.494.794
Sta. Catalina - Stmo. Sacramento	1.042.444	1.104.123	1.144.609	1.078.821	1.084.795	5.454.792
Zangozako Ikastola	956.721	1.028.636	987.238	963.431	973.108	4.909.134
Argia Ikastola	950.600	933.184	949.422	929.755	1.113.471	4.876.432
Amor de Dios	869.440	870.670	885.090	890.629	913.160	4.428.989
Carlos III Ikastetxe Teknikoa	770.849	796.063	837.772	786.081	838.044	4.028.808
Jesusen Bihotza (Altsasu)	813.767	817.673	793.055	806.803	786.813	4.018.111
Regina Pacis	833.760	788.489	795.119	773.078	755.837	3.946.283
Labiaga Ikastola	690.336	750.743	793.683	727.381	736.635	3.698.779

Ikastetxea	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016
Amor de Dios	668.893	671.098	675.848	700.495	702.073	3.418.407
Santísimo Sacramento	640.462	688.029	672.460	665.952	656.678	3.323.581
Nafarroako. Eraik. Lan Fundazioa	786.020	491.243	551.468	790.440	677.622	3.296.792
La Milagrosa	645.546	658.259	612.919	617.899	602.628	3.137.251
Nafarroako Eskola Politeknikoa	485.319	406.367	479.560	504.620	621.475	2.497.341
Sacerdotes del Corazón de Jesús	446.307	513.922	536.542	522.892	475.502	2.495.165
Jesusen Bihotza (Bera)	472.080	460.275	472.126	479.272	465.754	2.349.508
Nuestra Señora del Puy	455.070	438.718	451.141	456.082	471.842	2.272.852
Fundación Taller Escuela	469.960	421.653	423.841	427.330	459.757	2.202.541
Fundación El Castillo	474.068	430.566	427.969	422.004	415.703	2.170.310
Erentzun Ikastola	319.496	356.334	422.888	412.905	408.509	1.920.132
Tantirumairu Ikastola	347.114	382.411	376.752	405.054	373.827	1.885.159
Padres Reparadores ikastetxea, Gares	401.357	365.229	361.177	361.503	354.063	1.843.329
Nuestra Señora de Los Dolores	292.275	305.127	318.444	334.704	311.933	1.562.482
Arangoiti Ikastola	266.726	274.091	297.294	338.893	352.207	1.529.209
Lantxotegi Elkartea	265.374	249.527	251.944	258.038	289.636	1.314.519
Ibaialde Ikastola	185.312	189.325	189.774	190.001	222.076	976.488
Asociación Cauces de La Ribera	186.304	190.162	194.073	199.429	197.875	967.843
Elkarte Fundazioa	282.931	120.711	128.153	184.542	164.171	880.508
Ntra. Sra. de las Escuelas Pías	143.527	145.267	146.288	130.898	81.523	647.503
<b>Guztira</b>	<b>125.018.522</b>	<b>128.070.855</b>	<b>130.282.370</b>	<b>131.743.488</b>	<b>132.550.687</b>	<b>647.665.921</b>

### 9. ERANSKINA IKASTETXE PRIVATUEK UDALETATIK JASOTAKO FUNTS PUBLIKOAK (2012-2016)

Ikastetxea	Udal finantzatzailea	2012	2013	2014	2015	2016	Guztira 2012-2016
Gurasoen Irakaskuntza Kooperatiba	(1)						
Iñigo Aritza Ikastola		106.456	90.016	87.535	84.283	85.699	453.989
Andra Mari Ikastola	(2)	76.199	68.145	97.916	70.372	95.868	408.501
Ilundain Haritz Berri Fundazioa	Aranguren	20.000	0	106.200	86.668	72.827	285.695
Labiaga Ikastola	Bera	48.192	49.357	45.662	40.771	51.404	235.385
Erentzun Ikastola	Viana	15.534	12.300	12.300	15.300	40.300	95.734
Tantirumairu Ikastola	Lesaka	21.244	19.648	18.103	15.964	17.971	92.931
Zangozako Ikastola	Zangoza, Oibar	12.350	12.350	12.350	12.350	12.350	61.750
Garcés de los Fayos Ikastola	Tafalla	500	38.500	1.060	0	588	40.648
Liceo Monjardín	Iruña	6.069	6.155	6.300	6.234	5.248	30.006
San Cernin	Iruña	6.039	6.131	6.273	6.140	2.977	27.560
San Ignacio	Iruña	6.139	5.769	5.865	6.250	2.267	26.289
Sagrado Corazón (Iruña)	Iruña	5.255	5.216	5.327	5.242	4.658	25.699
Ntra. Sra. del Huerto	Iruña	5.125	5.182	5.326	5.222	4.801	25.655
La Compasión Escolapios	Iruña	4.733	4.849	5.027	5.009	5.123	24.741
Escuelas Pías	Tafalla	498	571	14.867	5.757	0	21.693
Vedruna	Iruña	4.046	4.100	4.195	4.149	3.889	20.379
Santo Tomás	Iruña	3.872	3.960	4.067	4.007	3.960	19.867
Larraona Kardinala	Iruña	3.946	3.987	4.110	4.080	3.722	19.844
Esclavas del Sagrado Corazón	Iruña	3.950	3.851	3.923	3.792	4.313	19.830
Miravalles - El Redín	Iruña	3.567	3.775	3.930	3.896	3.498	18.666
Calasanz	Iruña	3.950	4.004	2.651	4.056	3.954	18.614
Santa Teresa de Jesús	Iruña	4.046	4.058	4.161	4.103	1.408	17.777
Hijas de Jesús	Iruña	3.998	3.986	4.077	4.099	1.452	17.612
Francisco de Jaso Ikastola	Iruña	1.341	3.831	3.859	3.838	3.363	16.232
Santa Luisa de Marillac	Barañain	3.613	3.557	3.076	2.894	2.387	15.527
Santa Catalina de Labouree	Iruña	2.845	2.929	2.934	2.961	3.658	15.328
Sta. Cat. - Stmo. Sacramento	Iruña	2.871	2.848	2.887	2.870	3.066	14.542
El Molino	Iruña	1.875	1.875	1.918	1.906	2.012	9.586
Nuestra Señora del Puy	Lizorra	0	0	0	5.712	3.306	9.018
Nuestra Señora de Los Dolores	Mendabia	1.547	1.455	1.713	1.701	1.688	8.103
Lantxotegi Elkartea	Berriozar	0	750	750	3.300	2.300	7.100
Ibaialde Ikastola	Lodosa, Andosilla	2.500	1.000	1.000	1.000	1.500	7.000
Lizorra Ikastola	Lizorra	0	0	0	0	1.030	1.030
<b>Orokorra, guztira</b>		<b>382.300</b>	<b>374.155</b>	<b>479.362</b>	<b>423.926</b>	<b>452.587</b>	<b>2.112.331</b>

(1) Altsasu, Urdiain, Ziordia eta Olazti.

(2) Arbizu, Lakuntza, Bakaiku, Iturmendi, Uharte Arakil, Ergoiena, Etxarri Aranzatz eta Arruazu.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK****KONTUEN GANBERAREN BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI BURUZKO IRADOKIZUNAK (MIRAVALLÉS-EL REDÍN IKASTETXEA)**

Jesús María Ezponda Iradier jaunak, Miravalles-El Redín ikastetxearen izenean eta hura ordezkatzuz, funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz (2012-2016) maiatzaren 17an emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hauek egiten ditu:

**ALEGAZIOAK**

Lehenengoa.- Txosteneko hirugarren gomendioa (33. orrialdea) dela eta, ezertan ukatu gabe aztertutako urteetan gure Komunitatean HELOren 60. artikulua artean garatu gabe zegoela, kontua da Osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. Hitzarmen Kolektiboak eta Nafarroako Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren sektoreko 2017ko irailaren 7ko Akordioak, hamabigarren neurrian, artikulua hori sakonki garatzen duela, eta, horrenbestez, beste autonomia erkidego batzuen aldean Nafarroa aitzindari dela lanpostu hutsak betetzeko prozesuaren gardentasunari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, gaurko errealitaterako egokiagozat jotzen da 33. orrialdetik gaiari buruzko gomendioa kentzea, edo, behintzat, gaur egun badagoela kontrol egokia adieraztea.

Bigarrena.- Hezkuntza Departamentuak historikoki ikastetxe itunduei egin izan dien eta gaur egun egiten dien kontrola bat dator araudi indardunarekin (HELO, HLO, 416/1992 Foru Dekretua etab.), eta ez da beste autonomia erkidego batzuen bano murriztagoa edo azalekoagoa. Beste kontu bat da hobetu litekeela, eta horretan ados gaude.

Hortaz, legearen ikuspuntutik, araudiari lotuagoa da 33. orrialdeko hirugarren lerroaldearen idazketa hau: "Horri dagokionez, egiaztatu dugu Hezkuntza Departamentuak gaur egun egiten duen kontrola araudi indardunarekin bat datorrela, baina hobetu litekeela, eta horregatik hau gomendatzen dugu:".

Hirugarrena.- "Bestelako gastuak" moduluari buruz ikastetxeak Nafarroako Gobernuari aurkeztu dion justifikazioan, lagineko gainerako ikastetxeetan bezala, defizita dago partida horretan. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu datu hori txostenean jasotzea eta gomendio bat eranstea hamargarren paragrafoan, honako honen antzekoa: "Berriazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak eta itunen moduluko "Bestelako gastuak" atalekoak (HLOren 117.3.b artikulua) gehitzea komeni den aztertzea".

Iruñean, 2018ko maiatzaren 22an

Jesús María Ezponda Iradier, zuzendaria

**TUTERAKO COMPAÑÍA DE MARÍA IKASTETXEA**

Jesús Gómez Martínez jaunak, Tuterako Compañía de María ikastetxearen izenean eta hura ordezkatzuz, funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hau egiten du:

**ALEGAZIOA**

Compañía de María ikastetxearen aipamen hau dago 28. orrialdean, IV.5 atalean ("Ikastetxe lagin baten azterketa"):

"Ezin izan dugu egiaztatu merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak aplikatu ote diren", langileen kontratazioez ari dela.

Idazki honen bidez eta erantsi ditugun agirien bidez adierazten dugu baietz, kontuan hartu ditugula merezimenduen eta gaitasunaren printzipioak; nahiz eta agian, Eskola Kontseiluak 2015-10-13an sinatutako dokumentuan ez diren behar bezain argi azaltzen hautapenerako irizpideak.

Compañía de María ikastetxeak 2014-15 ikasturtetik eskatu zion Hezkuntza Departamentuari ingelesezko IIP programan parte hartzeko. Programa horretan parte hartzeak nahitaezko betebeharrak eta betekizun batzuk dakartza; horien artean, ingelesezko prestakuntza ona duten irakasleak izatea (C1 maila egiaztatua dutenak).

Orditik aurrera egindako kontratazio guztietan kontuan hartu da hautagaiek IIP programan sartzeko eskatzen den titulazioa eduki eta betekizunak bete behar dituztela.

Kontratazio berriak egiteko prozedura hau erabili dugu: lanpostu hutsa ikastetxeko iragarki-oholean argitaratzeaz gain, harremanetan jarri gara ikastetxean curriculuma aurkeztua zuten eta aurrean aipatutako profila betetzen zuten pertsonekin. Ondoren pertsona horiek bi elkarrizketa egin dituzte, bata zuzendariarekin eta bestea Atzerriko Hizkuntzetako koordinatzailearekin. Atzerriko Hizkuntzetako koordinatzailearekin izandako bileran ahozko proba bat eta idatzizko proba bat egin dituzte. Beraz, kontratazio horietan C1 maila edo parekoa izatea eskatu bada, probak egin dira hautagaiek zer maila zuten jakiteko, eta ondoren lanposturako pertsona egokia hautatu da. Uste dugu HELOk 60. artikuluan ezartzen dituen printzipioak betetzen ari garela.

Agiri hauek erantsi ditugu, legeak ezartzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioak aplikatu ditugula frogatzeko:

1) Bete beharreko lanpostu hutsaren publiziterako agiria, eta Eskola Kontseiluaren agiria, irizpideak biltzen dituena.

2) Azken lau urteetan kontratatutako irakasleen zerrenda, dagokien titulazioarekin.

Aurrean azaldutakoak eta erantsitako dokumentazioak aipatu dugun 28. orrialdeko lerroaldea aldatzeko balioko dutelakoan, adeitasunez agurtzen zaituztet.

Agur bero bat

Jesús Gómez Martínez, Tuterako Compañía de María ikastetxeko zuzendaria

## TAFALLAKO GARCÉS DE LOS FAYOS IKASTOLA

Iosune Medina Pascual andreak, Garcés de los Fayos ikastolaren izenean eta hura ordezkatzuz, funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz (2012-2016) maiatzaren 17an emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hauek egiten ditu:

### ALEGAZIOAK

Lehenengoa.- Txosteneko hirugarren gomendia (33. orrialdea) dela eta, ezertan ukatu gabe aztertutako urteetan gure Komunitatean HELOren 60. artikulua artean garatu gabe zegoela, kontua da Osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. Hitzarmen Kolektiboak eta Nafarroako Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren sektoreko 2017ko irailaren 7ko Akordioak, hamabigarren neurrian, artikulua hori sakonki garatzen duela, eta, horrenbestez, beste autonomia erkidego batzuen aldean Nafarroa aitzindari dela lanpostu hutsak betetzeko prozesuaren gardentasunari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, gaurko errealiterako egokiagotzat jotzen da 32. orrialdetik gaiari buruzko gomendia kentzea, edo adieraztea, behintzat, gaur egun badagoela kontrol egokia.

Bigarrena.- Hezkuntza Departamentuak historikoki ikastetxe itunduei egin izan dien eta gaur egun egiten dien kontrola bat dator araudi indardunarekin (HELO, HLO, 416/1992 Foru Dekretua etab.), eta ez da beste autonomia erkidego batzuen bano murriztagoa edo azalekoagoa. Beste kontu bat da hobetu litekeela, eta horretan ados gaude.

Hortaz, legearen ikuspuntutik, araudiari lotuagoa da 33. orrialdeko hirugarren lerroaldearen idazketa hau: "Horri dagokionez, egiaztatu dugu Hezkuntza Departamentuak gaur egun egiten duen kontrola araudi indardunarekin bat datorrela, baina hobetu litekeela, eta horregatik hau gomendatzen dugu:".

Hirugarrena.- "Bestelako gastuak" moduluari buruz ikastetxeak Nafarroako Gobernuari aurkeztu dion justifikazioan, lagineko gainerako ikastetxeetan bezala, defizita dago partida horretan. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu datu hori txostenean jasotzea eta gomendio bat eranstea hamargarren paragrafoan, honako honen antzekoa: "Berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak eta itunen moduluko "Bestelako gastuak" atalekoak (HLOren 117.3.b artikulua) gehitzea komeni den aztertzea".

Tafallan, 2018ko maiatzaren 21ean

Iosune Medina Pascual

#### SANTA MARIA LA REAL - HERMANOS MARISTAS IKASTETXEA

Alberto Burguete Huarte jaunak, Santa María la Real Maristas ikastetxearen izenean eta hura ordezkatzuz, funts publikoekin finantzaturako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz (2012-2016) maiatzaren 17an emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hauek egiten ditu:

##### ALEGAZIOAK

Lehenengoa.- Txosteneko hirugarren gomendioa (33. orrialdea) dela eta, ezertan ukatu gabe aztertutako urteetan gure Komunitatean HELOren 60. artikulua artean garatu gabe zegoela, kontua da Osoara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. Hitzarmen Kolektiboak eta Nafarroako Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren sektoreko 2017ko irailaren 7ko Akordioak, hamabigarren neurrian, artikulua hori sakonki garatzen duela, eta, horrenbestez, beste autonomia erkidego batzuen aldean Nafarroa aitzindari dela lanpostu hutsak betetzeko prozesuaren gardentasunari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, gaurko errealitaterako egokiagozat jotzen da 32. orrialdetik gaiari buruzko gomendioa kentzea, edo adieraztea, behintzat, gaur egun badagoela kontrol egokia.

Bigarrena.- Hezkuntza Departamentuak historikoki ikastetxe itunduei egin izan dien eta gaur egun egiten dien kontrola bat dator araudi indardunarekin (HELO, HLO, 416/1992 Foru Dekretua etab.), eta ez da beste autonomia erkidego batzuen bano murriztagoa edo azalekoagoa. Beste kontu bat da hobetu litekeela, eta horretan ados gaude.

Hortaz, legearen ikuspuntutik, araudiari lotuagoa da 33. orrialdeko hirugarren lerroaldearen idazketa hau: "Horri dagokionez, egiaztatu dugu Hezkuntza Departamentuak gaur egun egiten duen kontrola araudi indardunarekin bat datorrela, baina hobetu litekeela, eta horregatik hau gomendatzen dugu:".

Hirugarrena.- "Bestelako gastuak" moduluari buruz ikastetxeak Nafarroako Gobernuari aurkeztu dion justifikazioan, lagineko gainerako ikastetxeetan bezala, defizita dago partida horretan. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu datu hori txostenean jasotzea eta gomendio bat eranstea hamargarren paragrafoan, honako honen antzekoa: "Berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak eta itunen moduluko "Bestelako gastuak" atalekoak (HLOren 117.3.b artikulua) gehitzea komeni den aztertzea".

Sarrigurenen, 2018ko maiatzaren 21ean

## ALTSASUKO JESUSEN BIHOTZA IKASTETXEA

Julián Ruiz Jiménez jaunak, Altsasuko Haur eta Lehen Hezkuntzako Jesusen Bihotza ikastetxeen eta Jesusen Bihotza Apaizgaitegiaren izenean eta haiek ordezkatzuz, funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz (2012-2016) maiatzaren 17an emandako behin-behineko txostena ikusirik, alegazio hauek egiten ditu:

### ALEGAZIOAK

Lehenengoa.- Txosteneko hirugarren gomendioa (33. orrialdea) dela eta, ezertan ukatu gabe aztertutako urteetan gure Komunitatean HELOren 60. artikulua artean garatu gabe zegoela, kontua da Osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. Hitzarmen Kolektiboak eta Nafarroako Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren sektoreko 2017ko irailaren 7ko Akordioak, hamabigarren neurrian, artikulua hori sakonki garatzen duela, eta, horrenbestez, beste autonomia erkidego batzuen aldean Nafarroa aitzindari dela lanpostu hutsak betetzeko prozesuaren gardentasunari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, gaurko errealiterako egokiagozat jotzen da 32. orrialdetik gaiari buruzko gomendioa kentzea, edo adieraztea, behintzat, gaur egun badagoela kontrol egokia.

Bigarrena.- Hezkuntza Departamentuak historikoki ikastetxe itunduei egin izan dien eta gaur egun egiten dien kontrola bat dator araudi indardunarekin (HELO, HLO, 416/1992 Foru Dekretua etab.), eta ez da beste autonomia erkidego batzuen bano murriztagoa edo azalekoagoa Nafarroako Gobernuak itundutakoa. Beste kontu bat da hobetu litekeela, eta horretan ados gaude.

Hortaz, legearen ikuspuntutik, araudiari lotuagoa da 33. orrialdeko hirugarren lerroaldearen idazketa hau: "Horri dagokionez, egiaztatu dugu Hezkuntza Departamentuak gaur egun egiten duen kontrola araudi indardunarekin bat datorrela, baina hobetu litekeela, eta horregatik hau gomendatzen dugu:".

Hirugarrena.- "Bestelako gastuak" moduluari buruz ikastetxeak Nafarroako Gobernuari aurkeztu dion justifikazioan, lagineko gainerako ikastetxeetan bezala, defizita dago partida horretan. Beraz, garrantzitsua iruditzen zaigu datu hori txostenean jasotzea eta gomendio bat eranstea hamargarren paragrafoan, honako honen antzekoa: "Berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak eta itunen moduluko "Bestelako gastuak" atalekoak (HLOren 117.3.b artikulua) gehitzea komeni den aztertzea".

Altsasun, 2018ko maiatzaren 21ean

## LIZARRA IKASTOLA

Jesús Suescun Cabasés jaunak, Lizarra Ikastola Irakaskuntzako Sozietate Kooperatiboaren izenean eta hura ordezkatzuz, funts publikoekin finantzatutako ikastetxe pribatuetako irakaskuntza ez-unibertsitarioari buruz (2012-2016) ikastolari igorritako behin-behineko txostena ikusirik, iruzkin eta iradokizun hauek egiten ditu:

1.- 28. eta 33. orrialdeak: Txostenean aztertutako urteetan Nafarroako Foru Komunitatean HELOren 60. artikulua artean garatu gabe bazegoen ere, Osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VI. Hitzarmen Kolektiboak eta Nafarroako Ikastolen Hitzarmen Kolektiboak eragindako irakaskuntza itunduaren sektoreko 2017ko irailaren 7ko Akordioak, hamabigarren neurrian, artikulua hori sakonki garatzen du, eta, horrenbestez, beste autonomia erkidego batzuen aldean Nafarroa aitzindari da lanpostu hutsak betetzeko prozesuaren gardentasunari dagokionez.

Ikuspegi horretatik, hau iradokitzen dugu:

1.1. Zuzen dadila 28. orrialdeko laugarren lerroaldea, langileak kontratatuzko prozeduretan publizitatearen betekizuna behar bezala San Fermin ikastolak bakarrik betetzen duela dioena, eta gainerakoek ikastetxeko iragarki oholean edo erakundearen web-orrialdean nahiz Facebookeko orrialdean argitaratu besterik ez dutela egiten. Uste dugu gure ikastetxeak betetzen duela legeria indarduneari ezarritakoa eta Irakaskuntza Itundua Hobetzeko Akordioan kontratazio prozedurei

buruz adostutakoa. Ez da derrigorrezkoa lanpostu hutsen berri hedabideetan zabaltzea; hala ere, onartuko genuke horren aldeko gomendio bat, egokitatzat joko balitz.

1.2. Gaiari buruzko gomendioa kentzea 33. orrialdetik, edo adieraztea, behintzat, gaur egun badagoela kontrol egokia.

2.- 33. orrialdea, hirugarren paragrafoa: Hezkuntza Departamentuak historikoki egin izan duen eta gaur egun egiten duen kontrola bat dator araudi indardunarekin (HELO, HLO, 416/1992 Foru Dekretua etab.), eta ez da beste autonomia erkidego batzuen baino murriztagoa edo azalekoagoa. Beste kontu bat da hobetu litekeela, eta horretan ados gaude. Hala, bada, paragrafoa honela idaztea iradokitzen dugu: "Horri dagokionez, egiaztatu dugu Hezkuntza Departamentuak gaur egun egiten duen kontrola araudi indardunarekin bat datorrela, baina hobetu litekeela, eta horregatik hau gomendatzen dugu:".

3.- 33. orrialdea, hamargarren paragrafoa: "Bestelako gastuak" moduluari buruz ikastetxeak Nafarroako Gobernuari aurkeztu dion justifikazioan, defizita dago partida horretan. Horregatik iradokitzen dugu datu hori txostenean jar dadila eta gomendio bat erants dadila hamargarren paragrafoan, honako honen antzekoa: "Berariazko hezkuntza-premiak dituzten ikasleei erantzuteko ikastetxeek jasotzen dituzten baliabideak eta itunen moduluko "Bestelako gastuak" atalekoak (HLOren 117.3.b artikulua) gehitzea komeni den aztertzea".

Lizarran, 2018ko maiatzaren 24an

#### FUNTS PUBLIKOekin FINANTZATUTAKO IKASTETXE PRIBATUETAKO IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOARI BURUZ (2012-2016) NAFARROAKO KONTUEN GANBERAK EMANDAKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAK EGINDAKO ALEGAZIOAK.

Azalpen bat gehitu dadila 10. eta 17. orrialdeetan.

- Derrigorrezko hezkuntzako edo derrigorrezkoa ez den hezkuntzako zikloekin zuzenean lotu ezin diren 18,31 milioien barruan, arrazoia da Hezkuntza Departamentuaren eta beste departamentu batzuen partida batzuek ez dutela zuzeneko loturarik ematen den irakaskuntza derrigorrezkoa edo ez derrigorrezkoa izatearekin.

19. orrialdean

- "Zenbait nominaren gastua zikloaren arabera esleitzerakoan egindako akatsak" aipatzen dira. Ez dira akatsak, baizik eta SAP programa informatikoak haien nomina gastu-partida bakar bati egozteari onartzen duela. Beraz, ez dugu uste akatsa denik. Dena den, Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua behar diren jarduketak egiten ari da benetako egoera isla dadin SAP RRHH programan.

26. eta 27. orrialdeak, IV. atala (Hezkuntza Departamentuaren ikuskapen eta kontrol jarduketak). Zenbait puntu argitu nahi ditugu:

- Ikastetxe pribatuetako langileak kontratatzekei dagokienez, HELOren 60. artikulua dioena aplikatu izan da, eta bertan ez da garatzen kontratazioa egiteko prozedura.

- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta irakaskuntza itunduko patronalak eta sindikatuek akordio berria sinatutakoan, horren hamabigarren klausulan, ikastetxe itunduetako irakasleen kontratazioari buruzkoan, garatu egin da araudian ezarritakoa, Datuak Babesteko Bulegoak publikitate neurriari buruz ezarri duen mugarekin. Informazioa aurkezteko ereduak eta irizpideak ikastetxeei igorri zaizkie dagoeneko.

- Bestelako gastuen ordainketaren justifikazioa dela eta. Araudiak ezartzen duenez, ikasturte bakoitzaren amaieran justifikatu behar dira; horretarako, kontu horiek onesten dituen Eskola Kontseiluaren erabakiaren ziurtagiria aurkeztu behar du ikastetxearen titularrak. Ikastetxeei zirkular bat bidaliko zaie, 2018-2019 ikasturteetik aurrera gastu horiek xehakatuago aurkezteko bete behar den ereduarekin.



- Gainera, patronalak eta Hezkuntza Departamentuak 2011n lankidetzeta-hitzarmena egin zuten hezkuntzako informazioa kudeatzeko, eta hitzarmen hori aldatu egingen da, EDUCAn sartu beharreko informazioa zabalagoa izan dadin

Atal horretako ondorioa gisa, ikastetxe itunduei ordaindutako funtsen gaineko kontrolik ez da falta, baina gehiago zehaztu behar da ikastetxeei eman beharreko informazioa. Halaxe jaso da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, patronalaren eta sindikatuen arteko akordio berria sinatzean, bai eta Haur Hezkuntzako eta Batxilergoko ituna berritzeko deialdietan ere, ikasturte honetan berritzekoa baita.

Ikastetxeen, Finantzaketaren eta Ikasketetarako Laguntzen Atalak kontrolatu egiten du araudi indardunean ezarritakoa, gastuen moduluak ordaintzeari eta langile baliabide eskuragarriekin egiaztatzeari eta bete beharreko gutxieneko erregulazioari dagokienez. Akordio berria sinatu ondoren, eta Kontuen Ganberaren aholkuak kontuan izanik, atal horretan langile gehiago jarri beharko dira sinatutako akordioaren kontrolerako eta jarraipenerako.

#### 29. orrialdean

Ordezkapena hamargarren egunean hasten da, Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuak ez zuelako onartzen ordezkoak kontratatzerik hamargarren egunera arte. Horren aldaketaren ondoren, Akordioan sartu da, irakaskuntza itunduan aplikatzeko.

Bestalde, Departamentuak kotizazio-elementuak prestatzeari dagokionez, hori ezin da horrela egin, irakasleekin kontratuak sinatzen dituen enpresa delako kotizazio-elementu horiek presta ditzakeena, eta ez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak; azken horrek ez du kontratu-harremanik irakasleekin, eta Gizarte Segurantzak ez du onartzen.

#### 30. orrialdean

Ikastetxe publikoko irakasleen oinarrizko ordainsariak ikastetxe pribatuko irakasleenak baino handiagoak izateari dagokionez, kontuan hartu behar da 2012. urtean, Hezkuntzaren arloko gastu publikoa arrazionalizatzeko premiazko neurriei buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretua argitaratu ondoren hezkuntzan egin ziren murrizketen ondorioz, irakasjardunaren atala betetzeko, irakaskuntza itunduko irakasleek beren borondatez % 2,5 murriztu zutela beren ordainsaria, langile kontratatuen kaleratzea saihesteko. Irakaskuntza publikoan ezin izan zen halakorik egin eta horrek kontratuak ez berritzea ekarri zuen.

Orientazio lanak, irakaskuntza itunduan, ematen den irakaskuntza bakoitzari dagokion mailakoak dira.

#### 32. orrialdean.

Ikastetxe publikoaren funtzionamendu gastua udalak finantzatzen duela azaltzen da, eta hori horrela da eraikinak udalarenak direlako. Eta ikastetxe itunduak ez duela ezer jasotzen udaletik; hori horrela da Hezkuntza Departamentuak ordaintzen dituelako gastu horiek, bestelako gastuen moduluaren barnean.

#### 45. orrialdean.

6. eranskinean. Moduluak eta irakasle ratioak unitate itundu bakoitzeko: 2016-2017 ikasturtea dioen lekuan 2016. urtea esan behar du, ekitaldi ekonomikoetako aurrekontuak direlako.

#### IV.7 atalari buruzko alegazioak. Amaierako konklusioa eta gomendioak

Hezkuntza Departamentuaren eta irakaskuntza itunduko patronalen eta sindikatuen ordezkarrien arteko akordio berria sinatu arte, egiten zen kontrola, gastuen justifikazioei eta langileen kontratazioari dagokienez, HELOn, Hezkuntza Itunei buruzko Oinarrizko Arauen Erregelamendua onesten duen abenduaren 18ko 2377/1985 Errege Dekretuan eta Hezkuntza Itunei buruzko Arauen Erregelamendua onesten duen 416/1992 Foru Dekretuan arautzen zen.

EDUCAn sartu beharreko informazioa otsailaren 10eko 25/2011 Foru Aginduan ezarrita dago. Foru agindu horrek onesten du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntza Itunduko enpresaburuen erakundearen arteko lankidetzeta hitzarmenaren testua, hezkuntza arloko informazioa kudeatzekoa.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, patronalak eta sindikatuek 2017ko irailaren 7an akordio berria sinatu ondoren, neurri hauek gauzatuko dira:

- Langileen kontratazioaren gaiari dagokionez, araudian ezarritakoa garatzen duten irizpide batzuk ezarri dira jada. Patronalak, sindikatuek eta Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiko langileek osatzen duten Jarraipen Batzordeak 2018ko martxoaren 15ean adostu ditu, eta dagoeneko ikastetxeei bidali zaizkie.

- Ikastetxeei zirkular bat bidaliko zaie, 2018-2019 ikasturtetik aurrera bestelako gastuen modulua xehakatuago aurkezteko bete beharko den ereduarekin.

- Aldatu egingen da 25/2011 Foru Agindua, irakaskuntza itunduko ikastetxeek irailean sinatu zen akordioan jasotako informazioa sar dezaten EDUCAn.

- Hezkuntza Departamentuko zerbitzu guztien arteko koordinazioa antolatuko da, sinatutako akordioa eta irakaskuntza itunduari aplikatu beharreko gainerako araudia nola betetzen den kontrolatzeko. Horretarako beharrezkoa izanen da Hezkuntza Departamentua teknikariez hornitzea lan hori egin dezaten.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 28an

Maria Solana Arana, kontseilaria

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-  
DAKO ERANTZUNA**

Aurkeztu dizkiguten alegazioengatik eskerrak ematen dizkiegu Miravalles-El Redín ikastetxeko, Compañía de María ikastetxeko, Garcés de los Fayos ikastolako, Santa María la Real ikastetxeko, Altsasuko Jesusen Bihotza ikastetxeko eta Lizarra ikastolako zuzendariei eta Hezkuntza Departamentuko kontseilariari. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako haren edukia aldatzen. Halere, honako hau aipatu nahi dugu:

- Miravalles- El Redín ikastetxeak, Garcés de los Fayos ikastolak, Lizarra ikastolak, Santa María la Real ikastetxeak eta Altsasuko Jesusen Bihotza ikastetxeak egindako alegazioei dagokienez, adierazi nahi dugu aldaketa batzuk abian jarri direla eta ziur aski hobetu egingen dutela Hezkuntza Departamentuak egiten duen kontrola, baina ez dugula egiaztatu aldaketa horiek benetan aplikatzen direnik, eta horregatik ezin dugula kontrola egokia denik baieztatu.

- Compañía de María ikastetxearen alegazioei dagokienez, merezimendu eta gaitasun printzipioen aplikazioa egiaztatu ezinari buruzko gure konklusioak berresten ditugu; aurkeztutako dokumentuek frogatzen dute kontratatu ziren pertsonak eskatutako baldintzak betetzen zituztela, baina ez dakigu zer puntuazio lortu zuten lanpostu horiek betetzeko aurkeztu ziren gainerako hautagaiek.

- Hezkuntza Departamentuko kontseilariak egindako alegazioetan adierazten denez, ikastetxe itunduetako irakasleen nominak aurrekontu-partidei esleitzerakoan egindako akatsen arrazoi bakarra da pertsona horiek ziklo desberdinetan irakasten dutela eta aplikazio informatikoak haien gastua partida bakar bati esleitzea onartzen duela; hala ere, egiaztatu dugu akatsak egin direla hezkuntza mota bakarrean irakasten duten pertsonekin, nahiz eta, gure txostenean jada adierazten zen moduan, esleipen zuzenak ez zituzkeen nabarmen aldatuko aipatutako zifrak.

Horrez gain, alegazioetan aipatzen da irakaskuntza itunduko orientazio lanak ziklo bakoitzari dagokion mailakoak direla. Egiaztatu dugu, ordea, txostenean aipatu genuen bezala, Lehen Hezkuntzan ikastetxe publikoetan ordainsariak A mailakoak direla eta itunduetan, berriz, B mailarekin pareka daitekeen mailakoak, bietan prestakuntza maila bera eskatzen den arren, eta horrek gastuen arteko aldeak sorrazten dituela.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 29an  
Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

